ALEMANETIK EUSKARARAKO UNITATE FRASEOLOGIKOEN ITZULPENEAN TREBATZEKO IKASMATERIALA

Egilea

ZURIÑE SANZ VILLAR

EUSKARA ETA HIZKUNTZA PLANGINTZARAKO ERREKTOREORDETZA

Argitalpen honek EHUko Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren laguntza izan du.

ISSN 2603-8900

Aurkibidea

1. Sarrera 2
2. Fraseologia eta unitate fraseologikoak 5
2.1. Ezaugarriak 6
2.1.1. Polilexikalitatea: gutxienez bi hitzez osatuak 6
2.1.2. Egonkortasuna eta maiztasuna 7
2.1.3. Sormenezko aldakuntzak 10
2.1.4. Irregulartasun estrukturala 13
2.1.5. Irregulartasun semantikoa (idiomatikotasuna) 14
2.1.6. Ezaugarri pragmatikoak 16
2.2. UF motak 17
2.2.1. Burgerren sailkapen-proposamena 17
2.2.2. Corpas Pastorren sailkapen-proposamena 21
2.3. Ariketak 26
3. Dokumentazio-baliabideak 36
3.1. Alemanezko hiztegi fraseologikoak 37
3.1.1. Online 37
3.1.2. Paperean 40
3.2. Alemanezko hiztegi orokorrak 44
3.3. Euskara barne hartzen duten hiztegi fraseologikoak 47
3.4. Euskarazko hiztegiak eta hitz konbinazioak 52
3.4.1. Hiztegi elebakarrak 52
3.4.2. Hiztegi elebiduna 55
3.4.3. Corpusetan oinarritutako euskarazko hitz konbinazioak 56
3.5. Zeharkako baliabideak (alemana-gaztelania) 58
4. Alemanetik euskararako unitate fraseologikoen itzulpena 63
4.1. Itzulpen-aukerak 63
4.1.1. UF->UF 63
4.1.2. UF->Neutralizazioa edo UFrik ez erabiltzea xede-testuan 64
4.1.3. UF->Kopia (kalkoa / hitzez hitzeko itzulpena) 66
4.1.4. Omisioa 69
4.1.5. UFrik ez edo ezer->UF/Sorkuntza fraseologikoa 70
4.2. UFak eta literatura 70
4.3. Ariketak 72

1. Sarrera

Itzulpengintzako master europarren sareak (European Master's in Translation, EMT) itzultzaileen gaitasunen markoa proposatu zuen 2009an, eta 2017an eta 2022an bertsio eguneratuak argitaratu zituen. Egun, itzultzaileen formakuntzaren alorrean erreferentzia garrantzitsua da, Europar Batasunean eta harago. Proposatzen dituen bost gaitasun-alorren artean (hizkuntza eta kultura, itzulpena, teknologia, gizabanakoari dagokiona eta pertsonen artekoa, eta zerbitzuak ematekoa), lehena hizkuntza eta kulturari dagokio, zeina —teknologiaren garapena gorabehera— itzulpen-gaitasun aurreratuaren oinarri den eta beste gaitasunen bultzatzaile (2022, 6. or.).

Hizkuntzaren lanketa horri lotuta, hiru unibertsitateko ikasleei egindako galdeketa baten emaitzek erakutsi dute (Schmidhofer, Cerezo Herrero eta Koletnik, 2021) hizkuntzen arteko ikasketa kontrastiboa ez dela gehiegi jorratzen hizkuntzaren irakaskuntza helburu duten ikasgaietan (2021, 86. or.), eta ikasleek beharrezko ikusten dituztela itzulpenera bideratutako ariketak edo azpimarra maila kontrastiboan jartzen dutenak (2021, 87. or.).

Azken urteotan, itzulpen-praktiketako eskoletan ikusi dut ikasleek, oro har, gogo onez hartzen dituztela ezagutza kontrastiboa jorratzeko proposatutako ariketak, alemanetik euskararako itzulpen-praktiketako eskoletan behinik behin. Hirugarren mailako bigarren lauhilekorako dago aurreikusita ikasgai hori UPV/EHUko Itzulpengintza eta Interpretazioa Graduan. Ikasgai hori burutzen duten ikasle gehienentzat alemana bigarren hizkuntza atzerritarra da, zerotik ikasten dutena unibertsitateko ikasketak hasteaz bat, eta gehienek erdi-mailakotzat jotzen dute haien aleman-maila (Sanz-Villar, 2024).

Maila kontrastiboan landu ohi dugun alderdietako bat fraseologiaren itzulpena da. Hizkuntzaren irakaskuntzaren alorrean fraseologiaren didaktikari eskainitako ikerketa eta irakaskuntzarako materialak urriak badira (Autelli, 2020, 92. or.), are urriagoak dira itzulpen-praktiketako ikasleen formakuntza helburu duten azterketa eta irakaskuntzarako tresnak

(zer esanik ez alemana-euskara hizkuntza-konbinazioan). Modu xumean bada ere, hutsune hori betetzera dator eskuliburu hau, hiru atal nagusitan banatu duguna. Sarrera eta gero datorren bigarren kapitulu horretan laburbildu dugu fraseologia zer den, unitate fraseologikoek (hemendik aurrera UF) zein ezaugarri dituzten eta nola sailkatu izan diren. Jarraian, testuetan alemanezko UF mota desberdinak identifikatzeko eta horien euskal ordainei buruz hausnartzeko ariketak proposatzen dira. Hirugarren atalean, alemanetik euskarara itzultzean baliagarri izan daitezkeen baliabideak aurkituko ditugu, bai orokorrak eta bai espezializatuak; hau da, fraseologikoak, gure kasuan. Azken kapitulua unitate fraseologikoen itzulpenari eskaini diogu. Itzulpen-aukeren inguruan jardun ostean, atal honen amaieran ere ariketa batzuk proposatzen dira, teoria mailan deskribatutakoa modu praktikoan jorratzeko. Ariketa horiek diseinatzeko abiapuntua ikasleen itzulpenekin osatutako corpus bat izan da (*ALEUSIKAS*), eta corpus hori MUST [1] nazioarteko proiektuaren testuinguruan sortu eta ustiatu da. Corpus horretan akatsak identifikatu ditugu lehenengo —hots, errore-anotazioa egin dugu TAS [2] anotazio-sisteman oinarrituta—, eta, ondoren, anotazioaren analisia egin dugu (Sanz-Villar, 2024). Azterketa horren emaitza dira azken kapituluan aurkitzen diren ariketak.

Bibliografia

Autelli, Erika. (2020). Welche Rolle spielen Phraseme im kontrastiven universitären Fremdsprachenunterricht? – Eine Analyse von deutsch-italienischen Beispielen aus Kursen B1+ an der Universität Innsbruck. In Astrid Schmidhofer eta Annette Wußler (Ed.), *Bausteine translationsorientierter Sprachkompetenz und translatorischer Basiskompetenzen* (79-100. or.). Innsbruck University Press.

[1] Sylviane Granger eta Marie-Aude Lefer-ek abiarazi zuten MUST (*Multilingual Student Translation Corpus*) proiektua 2016. urtean (https://uclouvain.be/en/research-institutes/ilc/cecl/must), eta TRALIMA-ITZULIK ikerketa taldeak hainbat corpus sortu eta ustiatu ditu proiektu horren baitan 2019. urteaz geroztik.

[2] https://uclouvain.be/fr/system/files/uclouvain_assetmanager/groups/cms-editors-cecl/TAS-2.0_annotation_manual_2021-10-26%20%281%29.pdf

EMT Board and Competence Task-Force. (2022). *European Master's in Translation. Competence Framework 2022*. https://commission.europa.eu/system/files/2022-11/emt_competence_fwk_2022_en.pdf

Sanz-Villar, Zuriñe. (2024). German-to-Basque Translation Analysis of Multiword Expressions in a Learner Translation Corpus. *Íkala, Revista De Lenguaje Y Cultura*, *29*(1), 1-21.

Schmidhofer, Astrid, Cerezo Herrero, Enrique eta Koletnik, Melita. (2021). Why We Need TI-Oriented Language Learning and Teaching (TILLT). *ELOPE*, *18*(1), 71-89.

2. Fraseologia eta unitate fraseologikoak[3]

Corpas Pastor-ek aipatzen duen moduan, 1970eko hamarkada hasieratik aurrera hasten da fraseologia diziplina independente gisa ezartzen, hainbat alorretan —hala nola, diskurtsoaren analisiaren eta hizkuntzalaritza testualaren inguruko azterketetan, hizkuntzaren jabekuntza eta prozesamenduaren inguruko ikerketetan edo corpus digitalizatuetan oinarritutako azterketetan— egindako azterketek agerian utzi baitzuten lexikoak hizkuntzan duen garrantzia: «El establecimiento de la fraseología como disciplina propia e independiente ha sido una de las consecuencias más importantes del "giro léxico" experimentado por la lingüística a comienzos de los años setenta» (Corpas Pastor, 2003b, 245. or.). Fraseologiaren garapena tokiaren eta hizkuntzaren araberakoa izan da, baina ezin ukatuzkoa da fraseologia espainiarrak euskal fraseologian izan duen eragina (Sanz-Villar, 2024), eta, horregatik (eta nazioartean izan duen oihartzunagatik), garrantzitsua iruditzen zaigu Corpas Pastorren 1996ko eskuliburuari erreferentzia egitea: *Manual de fraseología española*. Lan horretan proposatzen den unitate fraseologikoen definizioa hartuko dugu abiapuntu gisa unitate hauek zein ezaugarri dituzten deskribatzeko, eta kasuan-kasuan dagozkion ñabardurak egingo ditugu euskararen berezitasunak kontuan hartuta: «unidades léxicas formadas **por más de dos palabras gráficas** en su límite inferior, cuyo límite superior se sitúa en el nivel de la oración compuesta. Dichas unidades se caracterizan por su alta **frecuencia de uso**, y de coaparición de sus elementos integrantes; por su institucionalización, entendida en términos de **fijación** y especialización semántica; por su **idiomaticidad** y **variación potenciales**; así como por el **grado** en el cual se dan todos estos aspectos en los distintos tipos» (Corpas Pastor, 1996, 20. or.). Definizioari jarraiki, gutxienez bi hitzez osatutako unitate lexikoak dira, baina esaldi beregainak ere osa ditzakete. Maiz erabiltzen dira, eta unitatea osatzen duten elementuak batera agertzeko maiztasuna ere altua da. Egonkorrak dira, baina, aldi berean, aldaerak

[3] Doktorego programaren amaieran egindako lanean eta doktorego tesian (2015) jorratu zituen Sanz-Villarrek jarraian aipatzen direnak. Gehiago sakondu nahi duenak, online kontsulta dezake azken hori (https://addi.ehu.es/handle/10810/15128).

onartzen dituzte, eta irregularrak izan daitezke bai formalki bai semantikoki. Amaitzeko, aipatzen da ezaugarri horien presentzia graduala dela, ez direla, beraz, ezaugarri guztiak UF mota guztietan modu berean agertuko, eta, horregatik, aurrerago UFen sailkapenen inguruan arituko gara. Definizio honetan aipatu ez arren, UFek ezaugarri pragmatiko jakin batzuk izan ditzakete, eta horiek ere izango ditugu hizpide, itzulpenaren ikuspuntutik garrantzitsuak iruditzen zaizkigulako.

2.1. Ezaugarriak

2.1.1. Polilexikalitatea: gutxienez bi hitzez osatuak

Harald Burger-ek, aleman fraseologian aditua den ikertzaileak, gauza bera dio: «Der Phraseologismus besteht aus mehr als einem Wort». Hitz elkartuek eta UFek semantikoki antzekotasunak izan ditzaketen arren, Burgerrek defendatzen du hitz elkartuak ikuspuntu morfosintaktikotik hitzak direla eta ez UF gisako hitz konbinazioak: «Trotz dieser semantischen Verwandaschaft mit den Idiomen würde ich sie gleichwohl nicht zur Phraseologie rechnen, da sie in morphosyntaktischer Hinsicht klar den Status von Wörtern und nicht von Phraseologismen haben» (Burger, 2002, 393. or.). Fiedler-ek ere (2007, 17. or.), 1. irudiko eskemaren bitartez, eta ingelesezko adibideak erabiliz, hitz elkartuen eta UFen arteko bereizketa egiten du:



1. irudia: Fiedler-en proposamena

Granger eta Paquot-ek (2008) gogorarazten digute, gainera, hitz elkartu ezberdinak daudela. Fiedlerren irudian agertzen direnez gain (batera idazten

diren *solid compounds* delakoak), badaude marratxoarekin elkartzen direnak edo bi hitz grafikoz osatuak (*high school*, kasu). Auzi garrantzitsua izan arren, ikertzaile horiek diote maiz ikerketetan ez dela argi adierazten zein den hitz elkartuen tokia fraseologiaren testuinguruan.

Argi dagoena da aditu guztiak ez datozela hitz/hitz elkartu/UF bereizketa zorrotzarekin bat. Izan ere, alemanezko hitz elkartu batzuk jatorri fraseologikoa dute. Esate baterako, aurrerago ikusiko dugun *händereibend* edo van Lawick-ek (2013, 134. or.) aipatzen dituen *leichtherzig* edo *steinhart* hitz elkartuak UF hauetatik eratorriak dira, hurrenez hurren: *sich die Hände reiben*, *leichten Herzens* eta *hart wie ein Stein*. Horregatik osatzen dute hirurek *continuum* bat van Lawick-en ustez (2013, 135. or.), eta hiruren arteko mugak lausoak dira.

Euskarak, beste hizkuntza eranskari batzuetan gertatzen den moduan (Nam *et al*. 2016), badu, gainera, berezitasun bat. Alde batetik, beste hizkuntza batzuetan bi unitate lexikoz edo gehiagoz osatutako UFak hitz bakarrez osatzen direla («arrapaladan», esate baterako). Bestalde, bi elementuz osatutako UFak ditugu, non osagaietako bat beste hitz bati lotzen zaion atzizkia den (eta ez hitz beregaina); esate baterako, «-en aldera». Aipatu bi adibideak lokuzio-markarekin jasotzen dira, esate baterako, *Elhuyar hiztegia*n edo *Labayru hiztegi fraseologikoan*, baina marka fraseologikorik gabe *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n. Beraz, ez dirudi adostasuna dagoenik lexikografiaren ikuspuntutik ere UFen ezaugarri honen inguruan.

2.1.2. Egonkortasuna eta maiztasuna

Fiedlerrek (2007, 19. or.) «the key feature» bezala definitzen du egonkortasunaren ezaugarria. Izan ere, neurri handiago edo txikiagoan, UF guztiak dira egonkorrak edo finkoak. Hitz-konbinazio askeen aldean, UFak instituzionalizatuta daude, esanahiari eta egiturari dagokionez; hau da, hiztunok UFa egitura eta esanahi jakin batekin ezagutzen dugu, eta horregatik behin eta berriz erabiltzeko gai gara. Egonkortasun hori hainbat ezaugarriren bitartez islatzen da UFetan. Alde batetik, UFa osatzen duten

osagaiak ez dira beste edozeinekin trukagarriak. Fleischerrek (1997, 36. or.) honako adibide hau ematen digu:

- *Gustav hat bei seinem Vater ein Auto in der Garage* (Gustavek auto bat dauka bere aitaren garajean).
- *Gustav hat bei seinem Vater einen Stein im Brett* (hitzez hitz: Gustavek harri bat dauka oholean bere aitarenean; esanahi fraseologikoa: Aitak estimu handitan dauka Gustav).

Lehenengoan ez dago UFrik eta *Auto* hitza beste batekin truka daiteke (*Wagen*, esaterako). Bigarrenean, berriz, *bei jmdm einen Stein im Brett haben* UFa daukagu, eta, *Stein* beharrean beste sinonimo edo eremu semantiko bereko hitzen bat erabiliko bagenu, esaldiak ez luke zentzurik izango.

UFa osatzen duten osagaien hurrenkeran ere islatzen da egonkortasunaren ezaugarria, UFa osatzen duten banakoen hurrenkera finkoa da eta. Euskaraz, esate baterako, bi pertsona adiskide min direnean, «hezur eta mami» direla esaten dugu, eta ez «mami eta hezur».

Hiztunok UFak berregiteko dugun gaitasuna egonkortasuna definitzen duen beste parametro argi bat da. Memorian gordetako hitz-kate finkoak diren heinean, ez ditugu «asmatu» behar, memoriatik berreskuratu eta erreproduzitu baino. Horregatik, askotan gertatzen zaigu perpausa amaitu baino lehen badakigula zein den ondoren etorriko den hitza:

- Niri ez adarrik... (jo)
- Mir ist ein Stein... (vom Herzen gefallen)

Berreskuratze prozesu hori gertatzen da, bai UFen kodifikazioan, bai deskodifikazioan; hau da, UFa unitate bezala memorian gordeta dugunez, gai izango gara UF hori testuinguru berri batean ulertzeko, eta baita behin eta berriz erreproduzitzeko ere.

-Aldakortasuna

Egonkortasuna gorabehera, Burgerrek (2007, 31. or.) ez du hain argi zein puntutaraino diren finkoak UFak. Badakigu, hitz-elkarketa askeen (*freie*

Wortverbindungen) aldean, horiek onartuko lituzketen aldaketa asko ez dituztela onartzen, baina, aldi berean, ez direla zurrun-zurrunak eta aldaerak onartzen dituztela. Burgerrek (2007, 25. or.) adibide ugari ematen dizkigu:

- *jmdn. auf den Arm/auf die Schippe nehmen* (esanahai fraseologikoa: adarra jo)
- *ein schiefes Gesicht machen/ziehen* (esanahai fraseologikoa: aurpegi txarra jarri)
- *seine Hand/seine Hände im Spiel haben* (esanahai fraseologikoa: zerbaitetan nahastuta egon)

Aldaera horiek, ikus daitekeen bezala, maila desberdinetakoak dira; lehena eta bigarrena maila lexikoan gertatzen dira, eta hirugarrena, aldiz, aldaketa morfologikoa da. Lehenengo adibidean, *Arm Schippe*gatik ordezkatzen da; hau da, izen-ordezkaketa bat dago. Bigarrenean, aditz desberdinak erabiltzen dira, eta hirugarren adibideko UFak singular eta plurala onartzen dituela ikus daiteke. Ondorio bezala, Burgerri jarraituz esan daiteke: «Die phraseologische Forschung hat überzeugend klar gemacht, dass Phraseologismen polylexikalische Einheiten von relativer Festigkeit sind. (...) brauchen wir eine flexible Konzeption von Phraseologie, die den Gedanken toleriert, dass man innerhalb eines Phraseologismus stabilere und weniger stabile Elemente annehmen darf, ohne dass damit sein Status als linguistische bzw. psycholinguistische Einheit verloren ginge» (2007, 31. or.).

Hau da, UFen egonkortasuna ez da ezaugarri absolutua, erlatiboa baizik, eta, erlatiboa den heinean, fraseologia ezingo dugu modu zorrotzean ulertu; fraseologiaren ikuspegi malgua izan behar dugu, onartuz, UF baten barruan egonkorrak eta ez hain egonkorrak diren elementuak aurki ditzakegula.

UFen aldakortasuna —edo osagai finkoak, alde batetik, eta osagai aldakorrak, *slot*ak, bestalde, dituzten UFak— deskribatzeko beste ikuspuntu bat dago, fraseologiaren esparruan oihartzun gero eta handiagoa duena: Konstrukzio Gramatika. Corpas Pastor ikertzaileaz gain, bada espainiar fraseologiaren testuinguruan aipatu beharreko beste izen bat, Mellado Blanco (2020), bera izan baitzen fraseologia eta Konstrukzio Gramatikaren

arteko zubia eraiki zuena ikerketa fraseologiko espainiarraren esparruan (Esteban Fonollosa eta Ivorra Ordines, 2023, 147. or.), fraseologo alemaniarren eraginez (azken hauek lehenago identifikatu zituzten-eta delako konstrukzio fraseologikoak). Honela definitzen ditu Mellado Blancok (2020, 364. eta 365. or.): «Las construcciones fraseológicas son de carácter semiesquemático, es decir, se caracterizan por tener casillas vacías o *slots* no saturados léxicamente, y por lo general poseen un fuerte componente pragmático».

Euskararako ere baditugu aurrekariak, nahiz eta deskribapenerako erabilitako ikuspuntua eta terminologia hemen erabiliko dugunarekin bat ez etorri. Zamarripak, XX. mende hasierako *Manual del Vascófilo* (1913) lan mardulean, beste batzuen artean UFak biltzen ditu, eta bera izan zen euskal lokuzioen teorizaziorantz lehen urratsak eman zituena (https://intza.armiarma.eus/). Lan horretan, «modismos de énfasis» izeneko atala aurki dezakegu; hots, balio enfatikoa duten konstrukzioak. Zalantzazkoa da bertan aurki ditzakegun adibide batzuk UFak diren, baina emaitza orokorra oso interesgarria da, euskarazko konstrukzio fraseologikoen adierazgarri direnak biltzen dituelako, besteak beste. Hona hemen adibide bat: «Una frase cualquiera enfática también y compuesta de verbo *izan* conjugado, sujeto y predicado, pero teniendo por predicado un adjetivo precedido de substantivo con sufijo de genitivo, se traduce con "qué... más"» (Zamarripa, 1913, 88 or.). Adibidez: «¡Au da gizonaren txarra!» edo «¡Au da andrearen zoroa!». Aurrerago, Azkuek (1989) ere bildu zituen gisa honetako konstrukzio batzuk *Euskalerriaren Yakintza*ko hirugarren liburukian, esate baterako: «Zer Patxi ta Patxi oste!» (zeinak [Zer X ta Y oste] egitura duen).

2.1.3. Sormenezko aldakuntzak

Garrantzitsua da ez nahastea aipatu berri dugun aldakortasuna sormenezko aldakuntzekin (Urizar, 2012, 63. or.)[4]. Hidalgo-Ternero eta Rueda-Martínen

4 Hainbat termino erabili dira ezaugarri honi erreferentzia egiteko: «El término "Modifikation" para designar exclusivamente las variantes ocasionales fue propuesto por Burger *el al.* (1982: 69) y secundado por Barz (1986: 322; 1987: 319), Kunkel (1991), Korhonen

arabera (2023, 74. eta 75. or.), UFak maila formal, semantiko edo diskurtsiboan nahita aldatzen direnean sortzen dira sorkuntzazko aldakuntzak, UFa erraz identifikatzen da kasu horietan eta helburua efektu ilokutibo edo perlokutibo jakin bat sortzea da: umorea, ironia edo sorpresa, batzuk aipatzearren.

Timofeeva (2009) da hiru «desautomatizazio» mota horiek bereizten dituena (termino hori erabiltzen du ikertzaileak): aldakuntza formala denean, UFaren egitura formalean gertatzen dira aldaketak; desautomatizazioa semantikoa bada, berriz, UFa osatzen duten osagaien aktibazio semantikoarekin jolasten da, eta, azkenik, maila diskurtsiboko aldakuntzak erregistro-talkarekin du zerikusia. Diskurtso formal batean, esate baterako, lagunartekoak diren UFak erabiltzen direnean.

Batez ere kazetaritza- eta publizitate-testuetako adibideak jartzen ditu Timofeevak, eta guk ere azken horien alemanezko adibide erreal batzuk aipatu nahi ditugu, eguneroko bizitzatik ateratakoak. Innsbruck hiriko kaleetan, zakarrontzi berriak jarriko zituztela erabaki zuten 2010. urtean. Zakarrontziak, gainera, hainbat mezuz apainduta egongo ziren. Herritarrek aukeratu zituzten mezuok lehiaketa bidez, eta, irabazleen artean, behean ikusten diren bi zakarrontzietako mezuak ditugu, sormenezko aldakuntzaren adibide garbiak biak:

- *Gib mir keinen Korb* (hitzez hitz: ez eman ontzirik; esanahi fraseologikoa: ez eman kalabazarik)
- *Rein oder nicht rein, das ist hier die Frage* (hitzez hitz: barrura ala barrura ez, hori da galdera)

2. irudiko lehenengo adibidean sorkuntzazko aldakuntza semantikoa daukagu, non alemanezko UFaren osagai guztiak gordetzen baitira (*jmdm einen Korb geben*) eta *Korb* («ontzi») izenaren esanahi literalaren aktibazioaren bidez lortzen baita sorkuntzazko aldakuntza hori. Irudi bereko

(1992: 50) y B. Wotjak (1992: 133). Černiseva (1980: 308) y Fleischer (1997: 205), por el contrario, prefieren el término "okkasionelle Variabilität" u "okkasionelle Varianten"» (Mellado Blanco, 2004, 161. or.).

bigarren adibidean, berriz, aipu oso ezagun baten aldakuntza formala daukagu: *sein oder nicht sein, das ist hier die Frage* («izan ala ez izan, hori da galdera») aipuarena, hain zuzen. Duden-eko 12. liburukiaren sarreran (*Zitate und Aussprüche*), aipuei eskainitakoan, azpimarra jartzen da aipuen gaur eguneko manipulazioan. Lehen, aipuak zehatz-mehatz eta hitzez hitz erabiltzea bazegoen ongi ikusia, egun iragarki-testuetan barra-barra manipulatzen direla aipatzen da: «Ein weiterer auffälliger Unterschied zum früheren Umgang mit Zitaten zeigt sich darin, dass sie heute je nach Anlass beliebig abgewandelt oder verfremdet werden. Nicht mehr die Textgenauigkeit und der ursprüngliche Kontext bestimmen den Wert einer Zitatverwendung, sondern eine witzige Veränderung, die Assoziationen zum ursprünglichen Zusammenhang weckt» (*Zitate und Aussprüche*, 2017, 9. eta 10. or).

2. irudia: Innsbruck hiriko kaleetako zakarrontziak

Zakarrontzien adibidean, helburua jendearen arreta erakartzea da, eta zakarra zakarrontzietara botatzera bultzatzea, eta ez lurrera[5]. Urte batzuk pasa dira, ezin ukatuzkoa da hau irudiak ikusita, baina 2024. urtean oraindik bere tokian diraute mezu horietako askok eta askok eta jendearen arreta erakartzen jarraitzen dute.

Ez bakarrik publizitate-testuetan, literaturan ere ugariak dira sorkuntzazko aldakuntza kasuak. Burgerrek (2007) haur literaturan maiz gertatzen den fenomenoa dela aipatzen du. Hona hemen Otfried Preußlerren *Die kleine Hexe* liburuko adibide bat:

5 https://www.ibkinfo.at/auszeichnung-fuer-die-kreativsten-muelleimersprueche

Als er [der Rabe] die kleine Hexe erspäht hatte, fiel ihm ein Stein von der Rabenseele (Burger, 2007, 177. or.)

Idazleak *jmdm fällt ein Stein von der Seele* UFaren sormenezko aldakuntza formala egiten du, *Seele* beharrean *Rabenseele* erabiliz. UFaren osagaietako batetik abiatuta, hitz elkartu bat asmatzen du, pasarteari umore kutsua emanez.

Zuluagak (1999) honako hau gaineratzen du nahita modifikatutako UFen itzulpenaren inguruan: «Segmentos de este tipo constituyen un gran desafío a la capacidad de creación (y de resignación) del traductor» (1999, 548. or.). Ez dut uste amore eman behar dugunik, baina argi dago itzultzailearen sormenerako akuilu direla.

2.1.4. Irregulartasun estrukturala

Oso ongi datorkigu honako aipu hau jarraian azalduko dugun ezaugarria deskribatzeko: «If natural language had been designed by a logician, Idioms would not exist» (Johnson-Laird, 1993). Egia da, UFak ezin dira maiz logika edo hizkuntza-arauak erabiliz deskribatu. Burgerrek (2007, 20. eta 22. or.) aipatzen du, esate baterako, alemanez, kasu batzuetan, UFek deklinatu gabeko adjektiboa izaten dutela (*auf gut Glück*). Beste batzuetan, UFak aurrekaririk gabeko izenordez osaturik daude (*es schwer haben*).

Ezaugarri honi «sintaxi idiosinkratiko» deitzen diote Urizar *et al.*-ek (2009). Egileen arabera, sintaxi idiosinkratikoa da UF batzuk lokuzio bihurtzen dituena eta ez aurrerago aipatuko dugun idiomatikotasuna. Euskaraz, adibidez, objektu zuzenak determinatzailea eskatzen du, baina «lan egin bezalako hainbat aditzetan, ustez objektua denak ez du mugatzailerik hartzen» (Urizar *et al.*, 2009, 893. or.).

UF batzuetan gertatzen da UFa osatzen duten osagairen bat hitz-konbinazio jakin horretan baino ez dela erabiltzen. Aparteko osagai horiei «unikale Komponente» esaten die Burgerrek (2007). Adibidez, *am Hungertuch nagen* UFeko *Hungertuch* bilatzen baldin badugu *DWDS* hiztegian, honako ohar hau agertzen zaigu: «nur in der festen Verbindung»; hots, bakarrik hitz-

konbinazio finko batean erabiltzen dela, eta hitz-konbinazio finko horretan bakarrik (*am H. nagen*) duela esanahi bat, kasu honetan, gosea pasatzea (*Hunger leiden*). Urizar *et al.*-ek euskarazko adibideak ematen dituzte (*noizik behin*, *behinik behin*, *trikun-trakun egin*), eta honakoa gaineratzen dute: «sekuentzia hauetako askotan agertzen diren elementu batzuk ez dira azaltzen beste inongo testuingurutan, eta sarritan zein kategoriatakoak diren zehaztea ere zaila da» (2009, 893. or.).

Hurrengo atalean idiomatikotasun semantikoa izango dugu hizpide, baina Burgerrek aipatzen duen moduan, azaldu berri ditugun maila formaleko irregulartasunak ere idiomatikotasunaren adierazle izan daitezke, idiomatikotasuna zentzu zabalean ulertzen badugu: «Der Begriff "Idiomatizität" wird in der Forschung unterschiedlich weit interpretiert. In einer weiten Konzeption umfasst er einerseits die strukturellen Anomalien, die einen Aspekt der "Festigkeit" ausmachen, andererseits die spezifisch semantischen Besonderheiten, die viele Phraseologismen von freien Wortverbindungen abheben. In einer engeren Fassung meint man nur die semantischen Aspekte» (Burger, 2007, 31. or.).

2.1.5. Irregulartasun semantikoa (idiomatikotasuna)

Ezaugarri hau ez da UF guztietan agertzen; baina, noiz agertzen da? Ikuspuntu estrukturalista batetik, esanahi fraseologikoa eta hitzez hitzeko esanahia desberdintzen dira, eta bi hauek bat ez datozenean, semantikoki idiomatikoa den unitate fraseologiko baten aurrean izango gara. «Wenn überhaupt eine Diskrepanz zwischen der phraseologischen Bedeutung und der wörtlichen Bedeutung des ganzen Ausdrucks besteht, dann ist der Ausdruck idiomatisch im semantischen Sinn» (Burger, 2007, 31. or.). Edo, Urizar *et al.*-en (2009, 892. or.) aipatzen den moduan, konposizionalak ez direnean izango dira semantikoki idiomatiko: «esapide hauetako asko semantikoki ez-konposizionalak dira, hau da, horien interpretazioa nekez egin daiteke hura osatzen duten osagaien esanahietatik abiatuta (hanka sartu, begitan hartu, zorri piztua, batez beste, hala ere, behinik behin)».

Har dezagun Burgerren (2007, 31. or.) *Öl ins Feuer gießen* adibidea. Arau sintaktiko eta semantikoak ezagutzen baditugu, ez dugu inongo arazorik izango hitzez hitzeko esanahira ('olioa sutara bota') heltzeko. Baina Burgerrek (2007, 31. or.) dioen bezala: ez dago arau semantikorik unitatea osatzen duten elementuen hitzez hitzeko esanahitik esanahi fraseologikora ('zirikatu', 'sua piztu') heltzen laguntzen duenik. Bi esanahien artean aldea dagoen heinean, unitate fraseologiko idiomatiko baten aurrean izango gara.

Batzuetan zailagoa egiten zaigu unitate fraseologikoen esanahi fraseologikora heltzea. Horrek zerikusia du, besteak beste, idiomatikotasunaren izaera gradualarekin (Corpasen definizioan ikusi moduan); hots, maila desberdinak daudelako, eta, honen arabera, idiomatizitate osoa (*voll-idiomatisch*) ala idiomatizitate partziala (*teil-idiomatisch*) duten eta idiomatikoak ez diren (*nicht-idiomatisch*) UFak bereizten dira. Juska-Bacher-ek (2009, 12. or.) honako bi adibide hauek jartzen ditu alemanerako:

- *jmdn an der Nase herumführen*: hitzez hitz esan nahi du norbait sudurrean zehar gidatzea, eta zentzu figuratiboan, berriz, adarra jotzearen zentzua dauka (idiomatikotasun osoa).
- *jmdm vor der Nase wegfahren*: *DWDS* hiztegian aurki dezakegun adibidean (*Der Zug ist mir vor der Nase weggefahren*), esate baterako, ikusten da *wegfahren* aditzak esanahia gordetzen duela ('alde egin'), eta *vor der Nase* (hitzez hitz: sudurraren aurrean; muturren aurrean) zentzu fraseologikoan ulertzen dela (idiomatikotasun partziala).

Intza Proiektuko (ikus 3.3. atala) webgunean, idiomatikotasun semantiko osoaren erakusle den euskarazko adibide bat ematen digute: "«Logikatik» urrun dagoen esakuntza bat: adarra jo. Adarra izenaren esanahi guztiak bildu, jo aditzaren esanahi guztiekin banaka lotu eta ez dugu deus ulertzen. Zergatik ez ote du **adarra jo**-k zuhaitz adarra edo abarra ukitzea edo kolpatzea esan nahi? Zergatik ez idiaren, ahuntzaren edo beste edozein edo edonoren adarra jotzea edo kolpatzea? Zergatik ez ehiza-adarra musika tresna jo edo jokatzea? Eta adarra zakilaren sinonimoa baldin bada, nola

bilakatu da, adarra jo erotiko bat «inor bromatan zirikatu» esan nahi izatera? Horra hor sorketa «anormal» bat, eta euskalduna inondik ere[6]" (Intza Proiektua. *Euskal lokuzioak sarean*, d.g.).

2.1.6. Ezaugarri pragmatikoak

Maila diatopiko, diafasiko edo diastratikoan, UFek hainbat konnotazio izan ditzakete. Marka diatopikoek jatorri geografikoari buruzko informazioa ematen digute. Esate baterako, alemanezko *sei stadt!* UFa Alemania hego-ekialdean eta Austrian erabiltzen da, eta horren aldaera neutroagoa *Halt den Mund!* izango litzateke. Azken horrek, gainera, beste marka bat du, diafasikoa kasu honetan, lagunarteko erregistroan erabiltzen baita, eta baliokidea izan daitekeen *halt die Fresse!* UFa, lagunartekoa izateaz gain, arrunta ere bada. Segurak (1998, 68. or.) alemanezko eta gaztelaniazko hiztegi elebakarrak aztertu zituen, eta UFek izan ditzaketen honako marka diafasikoak identifikatu zituen: *literarisch / literario, gehoben / formal, neutral / neutro, umgangsprachlich / coloquial / familiar, salopp / popular, derb / vulgär / vulgar*. Bai Segura (1998, 60. or.) eta baita beste ikertzaile batzuk ere (Zuluaga, 1997, 634. or.; López Roig, 2002, 45. eta 46. or.) hiztegietan jasotzen duten tratamendu ez bateratuaz kexu dira, UFen ezaugarri pragmatiko hauei dagokienez. Amaitzeko, marka diastratikoek soziolektoaren inguruko informazioa ematen digute. Adibidez, alemaneko *keinen Bock haben* gazte-hizkerakoa da.

Aipatutako ezaugarri konnotatiboez gain badaude beste batzuk hiztunaren jarrera emozionalarekin zerikusia dutenak. Kollerren hitzetan (2007, 608. or.): «viele Phraseme verbalisieren tabuisierte Denotate auf verhüllend-euphemistische, verhamlosende, mildernde Art und Weise (Hessky 2001), andere wiederum haben einen humoristisch-ironischen Beiklang (Fleischer/ Michel/Starke 1993, 154 ff.)». Hiztegietan, honako marka hauek izan ditzakete (Segura, 1998, 72. or.): *scherzhaft / humorístico*, *ironisch / irónico*, *verhüllend / eufemístico*, *abwertend / despectivo*, *vertraulich / confidencial*, *pathetisch / patético*.

[6] https://intza.armiarma.eus/beroa/logikoa.htm

2.2. UF motak

Bi sailkapen aurkeztuko ditugu azpiatal honetan, UF mota ezberdinen berri emateko: Burgerrena lehena, fraseologia alemanean oinarritua eta oso ezaguna, eta Corpasena bigarrena, fraseologia espainiarrean erreferentea eta euskal fraseologoen artean aipatuena.

2.2.1. Burgerren sailkapen-proposamena

Burgerrek oinarrizko sailkapen bat eta hainbat UF klase berezi proposatzen ditu (Burger 2007, 33 or. aurrera). Hona hemen oinarrizko sailkapenaren azpimultzo nagusiak:



3. irudia: Burgerren sailkapena

Lehenengo hiru azpimultzoak egiteko Burgerrek erabiltzen duen irizpidea UFek egoera komunikatiboan betetzen duten funtzioa da. Inguratzen gaituen errealitateko objektu, egoera eta prozesuak izendatzeko erabil ditzakegu UF erreferentzialak. UF estrukturalek, aldiz, multzorik txikiena osatzen dute, eta horien funtzioa erlazio gramatikalak sortzea da. Bi adibide ematen dizkigu Burgerrek alemanerako: *in Bezug auf* eta *sowohl...als auch*. Hirugarren multzoko UFek, komunikatiboek, funtzio jakin batzuk betetzen dituzte egoera komunikatibo konkretuetan. «Ohiturazko formula» izendapena daramaten UFek osatzen dute hirugarren multzoa. Horiei esker, behin eta berriz errepikatzen diren egoera komunikatiboei aurre egiten diegu hiztun gisa. Sintaktikoki oso multzo anitza da, bi hitzez osaturikoak

aurki ditzakegu hemen (*guten Morgen*, *auf Wiedersehen*) eta baita perpausak osatzen dituztenak ere (*wir sind der Auffassung, dass*...).

3. irudian ikus daitekeen moduan, UF erreferentzialak, irizpide sintaktikoari jarraiki, bi azpimultzotan banatzen dira: perpausaren mailatik beherako UFak, nominatiboak, eta perpausaren mailakoak, proposizionalak. Idiomatizitate mailaren arabera, hiru UF mota bereizten ditu Burgerrek nominatiboen multzoan, baina azpimarratzen du hiruren arteko mugak lausoak direla:

-Kolokazioak: semantikoki idiomatikoak ez diren eta finkoak diren hitz anitzeko hizkuntza-unitateak dira hauek. Alemanez, *sich die Zähne putzen* izango litzateke adibide garbia, baina baita kapitulu honen amaieran proposatzen diren ariketetan ikusiko ditugun beste hainbat ere. «Garbitu»ren sinonimoak diren beste aditz batzuk ditugu alemanez (*waschen* edo *reinigen*, kasu), baina *Zahn*ek *putzen* aditza eskatzen du.

-Lokuzio partzialak: UFa osatzen duen osagaietako batek hitzez hitzeko zentzua gordetzen du eta besteak, berriz, hedadurazkoa hartzen. Ingelesezko adibidea jartzen du Burgerrek (2007, 38. or.): *kill time*, non oinarriak, *time*, 'denbora' esanahia gordetzen duen eta kolokatiboak, *kill*ek, hartzen duen zentzu figuratiboa.

-Lokuzioak: idiomatizitate maila altuko UFak dira hauek. Kasu honetan, ezin gara UFaren esanahira iritsi unitate hori osatzen duten elementuen adieratik abiatuta. Alemanezko *aus der Haut fahren* lokuzioari erreparatzen badiogu, adibidez, ikusiko dugu nekez iritsiko garela lokuzio horrek zer esan nahi duen jakitera *Haut* ('azal') eta *fahren*etik ('(ibilgailuz) joan') abiatuta.

Perpaus finkoak, formula topikoak ez bezala, txertatuta dauden testuinguruaren menpeko dira; hau da, testuinguruari erreparatzea ezinbestekoa da UFen esanahi osoa ulertzeko. Esate baterako, *das ist ja die Höhe!* UFaren kasuan, *das* erakuslearen bidez egoera jakin bati edo

solaskideak esandakoari erreferentzia egiten zaio, baina testuinguruari erreparatzea nahitaezkoa da «mundiala» den hori zer den jakiteko[7].

Formula topikoak UF beregainak dira; hots, testuinguru jakin bati loturik egon gabe ere ulertzen dira. Horien artean, atsotitzek irakaspen bat eman nahi izaten dute eta ageriko formulek jakinak diren gauzak, begi-bistakoak direnak, adierazten dituzte: *man lebt nur einmal* ('behin bizi gara'), esate baterako.

-Mota bereziak

- Errepikapen-formulak (*Modelbildungen*)

Errepikapenean oinarritzen diren UFak dira. Konstrukzio Gramatikaren begiradatik, kontrukzio fraseologiko gisa ikus daitezke, Esteban Fonollosa eta Ivorra Ordinesek (2023, 147. or.) argudiatzen duten moduan: «Desde la fraseología alemana, en cambio, este tipo de estructuras se han estudiado desde la década de los setenta, bajo conceptos como "Phraseoschablonen" (Fleischer 1997), "modellierte Bildungen" (Cernyseva 1975), "phraseologische syntaktische Schemata" (Schindler 1996: 238-239), "Modellbildungen" (Burger 2015; Häusermann 1977: 30). A pesar de que su naturaleza las confinaba a la marginalidad del mundo fraseológico, tanto las "Modellbildungen" como las "Phraseoschablonen" disfrutaban de un estatus especial y, además, eran consideradas, probablemente bajo la influencia de los germanistas rusos, como emparejamientos de forma y significado, aunque los conceptos de forma y significado no eran explícitos». Burgerrek aipatzen duen adibideetako bat *von Tag zu Tag* ('egunez egun') da eta UF horretatik orokortu daitekeen konstrukzioa *von X zu X*.

- Binomioak (*Zwillingsformeln*)

Errepikapen-formula eta binomioen arteko harremana estua da, baina hona hemen binomioen ezaugarri batzuk: gramatika-kategoria berekoak dira binomioa osatzen duten osagai nagusiak, semantikoki erlazionatuta egon

7 Burgerrek onartzen du ohiturazko formula eta perpaus finkoen arteko bereizketa ez dela beti erraza.

daitezke, eta juntagailuz edo preposizioz elkartzen dira. Euskaraz ugariak dira horrelako UFak: argi eta garbi, zur eta lur, inoiz edo behin, jira eta bira...

- Alderaketazkoak (*komparative Phraseologismen*)

Konparazioetan oinarritzen diren UFak dira hauek. Schemann-en hiztegian norbait argal dagoela adierazteko hainbat aukera aurki ditzakegu: *dünn wie ein Strich/Faden/Hering*, *dürr wie eine Hopfenstange sein*. Badirudi Konstrukzio Gramatikaren ikuspuntutik produktiboa den beste egitura baten aurrean gaudela.

- UF zinetikoak (*Kinegramme*)

Segurak (1998, 77. or.) honela definitzen ditu UF zinetikoak: «Ausdrücke, die ein außersprachlich kommunikatives Verhalten repräsentieren. Das non-verbale Verhalten besteht aus Mimik, Gestik und Paralinguistik». Beraz, bi maila semantiko desberdintzen dira UF zinetikoetan, Mellado Blancok (2004, 34. or.) adierazten duen bezala: bata hitzez hitzekoa, zeinak keinuren bat adierazten duen (eskuak igurztea, *sich die Hände reiben*en kasuan) eta bestea esanahi sinboliko edo fraseologikoa (poztasuna adieraztea UF konkretu horren kasuan; kasu batzuetan, besteen zorigaitzagatik sortutako poztasuna).

Kontuan izan behar da beti ez dela posible UF zinetikoen bi esanahiak aldi berean aktibatzea, eta, hala, hedadurazko zentzua gorde dutela. Burgerrek jartzen duen adibidea *sich die Haare raufen* da. Hitzez hitz ileak kendu esan nahi du, eta hedaduraz, berriz, amorrua, etsipena adierazteko erabil daiteke.

- Aipuak (*geflügelte Worte*)

Jatorri ezaguna duten UFak dira. Esate baterako, aipatu dugun *sein oder nicht sein, das ist hier die Frage*da aipuaren adibide argia.

- Egile-UFak (*Autorenphraseologismen*)

Testu jakin batean (literaturan, adibidez), hitz anitzeko unitate bat UF bihurtzen denean sor daiteke. Testuaren egileak sortua da, eta testuinguru jakin horretan soilik izango du zentzua.

- UF onimikoak (*onymische Phraseologismen*)

Izen bereziak dira. Adibidez: *Das Rote Kreuz* ('Gurutze Gorria').

- Termino fraseologikoak (*phraseologische Termini*)

Espezialitate-hizkeretako terminoak dira. Esate baterako: *in Konkurs gehen*.

- Klixeak (*Klischees*)

Beti testuinguru berdinetan erabiltzen eta berrerabiltzen diren UFak. Kazetaritza-testuetako adibidea ematen digu Burgerrek, kasu honetan: *Schritt in die richtige Richtung* ('norabide egokian emandako pausoa').

2.2.2. Corpas Pastorren sailkapen-proposamena

Historikoki, UFak hizkuntza bakoitzeko elementu propioak eta bereizgarriak direla pentsatu izan den arren (Corpas Pastor, 2003a,134. or.), ikertzaile askok frogatu dute hizkuntza desberdinetako UFek antzekotasun gehiago dituztela haien artean desberdintasunak baino. Corpas Pastorrek (2003a, 134. or.) proposatzen duena zera da: «(...) establecer unos criterios objetivos que pudieran servir de base para la clasificación de unidades fraseológicas en las distintas lenguas».

Corpas Pastorrek 3 esferen sailkapena proposatzen du bi irizpidetan oinarrituz: enuntziatua (UFek hizketako egintzak osatu ditzaketen ala ez) eta finkapena (hizkuntza-arauan, hizkuntza-sisteman edo hizketan). Lehenengo esfera kolokazioek osatzen dute; hau da, arauan edo erabileran bakarrik finkatuta dauden unitateek, edo, beste hitz batzuetan: «sintagmas completamente libres a los que el uso les ha conferido cierto grado de restricción combinatoria» (Corpas Pastor, 2003a, 135. or.). Bigarren esfera lokuzioek osatzen dute, sisteman finkatuta dauden unitateek. Ez kolokazioek ez lokuzioek ezin dute haien kabuz enuntziaturik sortu, ezta hizketako egintzarik osatu ere. Beste hitz batzuetan, komunikazio-egintza bat osatzekotan, diskurtsoko beste elementu batzuekin elkartu beharra daukate. Hirugarren esferakoak, enuntziatu fraseologikoak, aldiz, hizketan finkatuta daude, eta gai dira, hitzak berak dioen bezala, bai enuntziatuak

sortzeko bai hizketako egintzak osatzeko. Hona hemen, eskematikoki, Corpas Pastorrek (1996) proposatzen duen sailkapena:



4. irudia: Corpasen sailkapena

Esfera hauetako bakoitzerako azpisailkapenak proposatzen ditu Corpasek. Kolokazioak irizpide gramatikalaren arabera sailkatzen ditu, hots, kolokazioko elementuen arteko erlazio sintaktikoaren arabera. Horrela, sei azpimultzo desberdintzen ditu:

- Aditza+izena (subjektua): *estallar una guerra*
- Aditza+(preposizio)+izena (objektua): *poner a prueba*
- Izena+izenondo/izena: *viaje relámpago*
- Izena+preposizioa+izena: *diente de ajo*
- Aditza+aditzondoa: *desear fervientemente*
- Izenondoa (edo izenondo funtzioko partizipioak)+aditzondoa: *relacionado estrechamente*

Bigarren esferako unitate fraseologikoak ere, hots, lokuzioak, irizpide gramatikalaren arabera sailkatzen ditu. Sintagmako nukleoaren eta horrek perpausean duen funtzioaren arabera, honako zazpi lokuzio mota hauek desberdintzen ditu:

- Izen-lokuzioak: *peso pesado*

- Adjektibo-lokuzioak: *sano y salvo*[8].
- Adberbio-lokuzioak: *de pies a cabeza*
- Aditz-lokuzioak: *ser el último mono*
- Preposizio-lokuzioak: *gracias a*
- Lokuzio konjuntiboak: *ya... ya...*
- Lokuzio klausalak: *salirle (a alg.) el tiro por la culata*

Kasu honetan ere, sailkapen gramatikaletik harago, beste taxonomia batzuk posible dira. Irizpide semantikoaren arabera, bi motatako UFak bereiz daitezke: alde batetik, lokuzioak sortutako irudiaren araberakoak. Irudi hauetako bat, adibidez, giza gorputzarena izan daiteke (*meter la pata*, esaterako). Giza gorputza irudi bezala erabiltzen duten lokuzioak «somatismo» gisa ezagutzen dira. Bestalde, aditzera ematen den kontzeptuaren araberako sailkapen semantikoak ditugu. Kontzeptu horietako bat «hiltzea» izan daiteke, eta eremu semantiko horretan sartzen den UF bat gaztelaniako *estirar la pata* litzateke. Corpas Pastor (2003a, 138. or.) sailkapen honekiko ezkor agertzen da: «Este tipo de clasificación, no obstante, resulta poco sistemática, ya que depende, en gran medida, de la noción de campo semántico que se siga y los descriptores que se establezcan».

Hirugarren esferakoentzat, enuntziatu fraseologikoentzat, bi azpimultzo proposatzen ditu Corpasek. Bi multzo horietako bakoitzerako beste azpisailkapen bat proposatzen duen heinean, hirugarren esfera honen adierazpen eskematikoa aurkeztu, eta, ondoren, azaldu egingo dugu:

[8] Juntagailu batez loturiko bi adjektibozko lokuzio hau, Burgerren sailkapenaren arabera, binomioa ere izango litzateke. Horiez gain, alderaketazko UFak ere multzo honen barruan sartzen ditu Corpas Pastorrek (1996, 97. or.): *blanco como la pared* edo *fuerte como un toro*, kasu.



5. irudia: Corpasen sailkapena (enuntziatu fraseologikoak)

Paremiak bi ezaugarritan bereizten dira errutinazko formuletatik. Lehenengoek testu-autonomia daukate eta haien esanahia erreferentziala da. Bigarrenak, aldiz, egoera eta testuinguru jakinen menpeko dira, eta haien esanahia soziala, adierazkorra edo diskurtsiboa izan daiteke.

Corpas Pastorren (2003a, 144. or.) hitzetan, atsotitzak dira «las paremias por excelencia»; lexikalizazioa, autonomia sintaktikoa eta testu-autonomiaz gain (atsotitz guztiek betetzen dituzten ezaugarriak), egia orokorreko balioa eta izaera anonimoa dutelako. Berariazko baliodun enuntziatuek ez dute egia orokorreko balioaren irizpidea betetzen (*haz el amor* y *no la guerra*, esate baterako), eta aipuek ez dute izaera anonimoaren irizpidea betetzen, horien jatorria ezaguna delako.

Errutinazko formulek ez dute testu-autonomiarik, egoera komunikatibo konkretuen araberakoa delako haien erabilera. Formula diskurtsiboek diskurtso-antolatzaile funtzioa betetzen dute, eta bi mota desberdintzen ditu Corpasek:

- Irekiera- eta itxiera-formulak: *¿Qué hay?*, *hasta luego*
- Trantsizio-formulak: *A eso voy*, y *es más*

Formula psiko-sozialek pertsonen arteko interakzioak behar bezala gara daitezen laguntzen dute, alde batetik, eta, bestetik, igorlearen sentimenduak adieraztearen funtzioa ere izan dezakete. Irizpide semantiko eta pragmatikoaren arabera, sei formula desberdintzen dira:

- Formula adierazkorrak
    - Barkamen-formulak: *con perdón*

    - Onespen-formulak: *ya lo creo*
    - Ezespen-formulak: *ni hablar*
    - Eskertze-formulak: *muchas gracias*
    - Ihardespen-formulak: *de nada*
    - Zorte ona opatzeko formulak: *suerte* y *al toro*
    - Solidaritate-formulak: *qué mala suerte*
    - Solidaritate eza adierazteko formulak: *a mi plin*
- Promes- eta mehatxu-formulak: *ya ajustaremos cuentas*
- Formula zuzenak
    - Erregu-formulak: *al grano*
    - Informazio-formulak: *¿qué pasa?*
    - Animo-formulak: *no es para tanto*
- Adierazpenezko formulak
    - Baieztapen-formulak: *por mis muertos*
    - Formula emozionalak: *¡No te fastidia!*
- Erritu-formulak
    - Agurtze-formulak (saludo): *buenos días*
    - Agurtze-formulak (despedida): *con Dios*
- Hainbat formula desberdin: *al agua patos*

Ikus daitekeen bezala, azken esfera honetako sailkapena nahiko konplexua da. Santamaría Pérezek (2000, 82. or.) dio irizpide pragmatikoan oinarritutako sailkapena egitea zaila dela, UF bakoitzak, testuinguruaren arabera, balio semantiko eta pragmatiko desberdin bat har dezakeelako.

2.3. Ariketak

1. ariketa

Hutsuneak bete ondoren, jaso itzazu zerrenda batean alemanezko hitz anitzeko unitate finkoak eta azaldu, euskaraz, zer esan nahi duten. Ondoren, erantzun beheko galderei.

Bald nachdem Brigitte und Thomas in den Stand der Ehe traten, [_____] das erste Kind zur Welt. Damit ging ihr größter Wunsch in [_____]. Die junge Mutter ging sehr liebevoll mit ihrem Kind um. Dem jungen Vater ging diese Fürsorge manchmal zu weit. Und das Kindergeschrei [_____] ihm oft auf die Nerven. Trotzdem [_____] er nicht aus der Haut. Im Gegenteil: Bei der Kinderpflege ging er ihr oft zur [_____]. Und wenn das Kind schlief, [_____] er wie auf Eiern durch die Wohnung. Allerdings trat Thomas bei seiner Frau immer mehr in den [_____]. In ihren Gesprächen ging es fast nur noch um das Kind. Finanziell kamen sie über die [_____], obwohl das Kind ins Geld [_____]. Der vielbeschäftigten Mutter fiel zu Hause mit der Zeit die [_____] auf den Kopf. Brigittes Unzufriedenheit [_____] klar zutage. Deshalb kam sie auf die Idee wieder halbtags zu arbeiten. Thomas ging sofort auf diesen [_____] ein. Sein Organisationstalent kam jetzt voll zum [_____]: Mit seiner Hilfe [_____] die Arbeitssuche glatt über die Bühne. Brigitte kam bei einer angesehenen Firma unter. Gleichzeitig [_____] eine akzeptable Kinderfrau in Erscheinung. Das neue Leben [_____] nun seinen Gang. Die junge Familie kam mit der neuen Organisation ihres Alltags gut zurecht.

Iturria: Hall, Karin eta Scheiner, Barbara. (2001). *Übungsgrammatik. Deutsch als Fremdsprache für Fortgeschrittene* (10-11. or.). Hueber.

Galderak:

- Zer ezaugarri dituzte testu honetan identifikatutako hitz anitzeko unitateek?
- Mota ezberdinetako hitz anitzeko unitateak daudela esango zenuke? Zeintzuk?

- Zein baliabide erabili dituzu ezagutzen ez zenituen unitateak identifikatu eta haien esanahia ulertzeko?

2. ariketa

Testuan hitz batzuk falta dira. Zeintzuk? Ez baduzu falta den hitza ezagutzen, jo ezazu hiztegi, corpus edo egoki deritzozun beste baliabide batzuetara.

Kennen Sie eigentlich Momo? Momo lernt Deutsch als Fremdsprache. Er kann schon alle Sprachen der Erde, nur Deutsch lernt er gerade. Heute morgen ist er aufgestanden und hat sein Bett *gebaut*. Nein, nicht gebaut, gebaut ist militärisch, er hat sein Bett [_____]. Dann hat er sich die Zähne *gewaschen*. Nein, nicht gewaschen, gewaschen ist Französisch (se laver les dents), er hat sich die Zähne [_____]. Dann hat er eine Dusche gemacht. Nein, nicht gemacht, machen ist Italienisch (fare la doccia). Er ist unter die Dusche [_____] oder hat geduscht. Kann man sagen: er hat eine Dusche *genommen*? Momo wird sich erkundigen. Dann muss er für das Frühstück den Tisch *legen*. Nein, nicht legen, legen ist Englisch (to lay the table). Er muss den Tisch [_____]. Und nach dem Frühstück muss er den Tisch *freimachen*. Nein, nicht freimachen, das ist Englisch (to clear the table), er wird den Tisch [_____]. Und so geht das endlos weiter. Am Abend hat Momo von dem Lerntrubel genug. Er setzt sich in eine Ecke und sagt sich: Nun ist endlich wieder Ruhe *zurückgekommen*. Nein, nicht zurückgekommen, das ist französisch (le calme est revenu). Ah, Ruhe *setzt wieder ein*. Nein das ist Englisch (sets in again). Nun ist endlich wieder Ruhe [_____]. Steht in jedem deutschen Wörterbuch: Endlich ist wieder Ruhe [_____]. Leider nützt es Momo da nichts. Er braucht es unter *Ruhe*. Und da fehlt es meist.

Erantzun honako galdera hauei:

-Zein testu motaren aurrean gaude?

-Zein da gaia?

-Zeintzuk dira hitz anitzeko unitate hauek dituzten ezaugarriak?

-Agertu ohi dira hiztegietan?

-Hizkuntzen arteko alderaketa egiten badugu, zer ondorioztatu dezakegu?

Iturria: Hausmann, Franz Josef. (2004). Was sind eigentlich Kollokationen? In Kathrin Steyer (Ed.), *Wortverbindungen - mehr oder weniger fest* (309-334. or.). De Gruyter.

3. ariketa

Aus Haut und Knochen (Schiewe, 2019) filmeko pasarte bat ikusi duzu eta, jarraian, pasarte horren gidoia irakurriko duzu. Irakurri testua arretaz eta aukeratu alemanezko unitate fraseologikoak. Amaitutakoan, erantzun honako galdera hauei:

-Markatutako UFek zein ezaugarri dituztela esango zenuke?

-Aurkitu dituzu hiztegietan?

SUSANNE

Luisa, elektronisch verstellbares Kopfteil, 3099 Euro.

GEORG

Du bist ja immer noch da?

SUSANNE

Ja, ich gehe die Preislisten nochmal durch. Zur Sicherheit.

GEORG

Es ist noch kein Meister vom Himmel gefallen. Wirst sehen, im Laufe der Zeit, da kannst du das alles wie im Schlaf.

SUSANNE

Und wenn nicht?

GEORG

Wer gut mit Zahlen umgehen kann, der kann auch gut mit Menschen umgehen. Jetzt frag mich nicht, wieso. Aber es ist so. Und tu' mir einen Gefallen. Mach Feierabend, hm? Geh nach Hause zu Peter und den Kindern.

SUSANNE

Hallo! Ich bin da!

LARA

Mama!

SUSANNE

Seit wann darf ich nicht mehr ins Bad, wenn du drin bist?

LARA

Seitdem ich kein kleines Kind mehr bin?!

SUSANNE

Ist Papa noch nicht zurück?

LARA

Der holt Jonas vom Training ab.

SUSANNE

Und hast du schon was gegessen?

LARA

Jaa..

Was machst du da?

SUSANNE

Wieso liegt denn hier verschimmeltes Essen hinter deinem Schrank?

LARA

Das geht dich nichts an, ok?! Kannst du jetzt bitte gehen?

SUSANNE

Kann ich das wenigstens wegräumen?

LARA

Ich kann das allein.

LARA

Mama, bitte. Ich will mich jetzt bettfertig machen.

SUSANNE

Okay.

PETER

Du willst nicht wissen, wie es in meinem Zimmer damals ausgesehen hat. Ich sag nur: Teller, auf denen sich neues Leben gebildet hat.

Schiewe, Christina. (zuzendaria). (2019). *Aus Haut und Knochen*. Rowboat Film- und Fernsehproduktion.

Bibliografia

Burger, Harald. (2007). *Phraseologie. Eine Einführung am Beispiel des Deutschen*. Erich Schmidt Verlag.

Corpas Pastor, Gloria. (1996). *Manual de fraseología española*. Gredos.

Corpas Pastor, Gloria. (2003a). Criterios generales de clasificación del universo fraseológico de las lenguas, con ejemplos tomados del español y del inglés. In: Gloria Corpas Pastor (Ed.), *Diez años de investigación en fraseología: análisis sintáctico-semánticos, contrastivos y traductológicos* (125-155. or.). Lingüística Iberoamericana.

Corpas Pastor, Gloria. (2003b). Fraseología y traducción. In: Gloria Corpas Pastor (Ed.), *Diez años de investigación en fraseología: análisis sintáctico-semánticos, contrastivos y traductológicos* (245-276. or.). Lingüística Iberoamericana.

de Azkue, Resurrección María. (1989[3]). *Euskalerriaren Yakintza*. Euskaltzaindia & Espasa Calpe.

Zitate und Aussprüche. (2017). Duden.

Esteban Fonollosa, Maricel eta Ivorra Ordines, Pedro. (2023). *Hasta los huesos, bis in die Knochen*. Construcciones fraseológicas somáticas en contraste a través de corpus. *Revista de Filología Alemana*, *31*, 145-165.

Fiedler, Sabine. (2007). *English Phraseology. A Coursebook*. Narr.

Fleischer, Wolfgang (1997). *Phraseologie der deutschen Gegenwartssprache*. Niemeyer.

Granger, Sylviane eta Paquot, Magali. (2008). Disentangling the phraseological web. In Sylviane Granger and Fanny Meunier (Ed.), *Phraseology: An interdisciplinary perspective* (27-49. or.). John Benjamins Publishing Company.

Hidalgo-Ternero, Carlos Manuel eta Rueda-Martín, Marina. (2023). Glozoo: Un glosario trilingüe (es/en/de) basado en corpus para la traducción de zoologismos manipulados. *Romanica Olomucensia*, *35*(1), 71-88.

Intza Proiektua. Euskal lokuzioak sarean. (d. g.). https://intza.armiarma.eus/

Johnson-Laird, Philip. (1993). Foreword. In Cristina Cacciari, Patrizia Tabossi (Ed.), *Idioms: Processing, Structure, and Interpretation* (vii-x. or.). LEA.

Juska-Bacher, Britta. (2009). *Empirisch-kontrastive Phraseologie. Am Beispiel der Bekanntheit der Niederländischen Sprichwörter im Niederländischen, Deutschen und Schwedischen*. Schneider Verlag.

Koller, Werner. (2007). Probleme der Übersetzung von Phrasemen. In Harald Burger, Dmitrij Dobrovol'skij, Peter Kuhn eta Neal R. Norrick (Ed.), *Phraseologie: Ein internationales Handbuch der zeitgenössischen Forschung / Phraseology. An International Handbook of Contemporary Research* (605-613. or.). Walter de Gruyter.

López Roig, Cecilia. (2002). *Aspectos de fraseología contrastiva (alemán-español) en el sistema y en el texto*. Peter Lang.

Mellado Blanco, Carmen. (2004). *Fraseologismos somáticos del alemán*. Peter Lang.

Mellado Blanco, Carmen. (2020). Esquemas fraseológicos y construcciones fraseológicas en el contínuum léxico-gramática. In Encarnación Tabares, Carsten Sinner eta Esteban Montoro del Arco, *Clases y categorías en la fraseología española* (13-36. or.). Peter Lang.

Nam, Kilim, Song, Hyun-ju, y Choi, Jun. (2016). A morpheme-based analysis of lexical bundles in Korean: an interface between corpus-driven approach and lexicography. *Lexicography*, *3*, 39-62.

Santamaría Pérez, María Isabel. (2000). *Tratamiento de las unidades fraseológicas en la lexicografía bilingüe español-catalán*. [Doktorego-tesia]. Universidad de Alicante.

Sanz-Villar, Zuriñe. (2015). *Unitate fraseologikoen itzulpena: alemana-euskara. Literatur testuen corpusean oinarritutako analisia*. [Doktorego tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco.

Sanz-Villar, Zuriñe. (2024). A metalinguaxe da fraseoloxía vasca en coleccións e dicionarios. *Cadernos de fraseoloxía galega*, *25*, 131-153.

Segura, Blanca. (1998). *Kontrastive Idiomatik, Deutsch-Spanisch: eine textuelle Untersuchung von Idiomen anhand literarischer Werke und ihrer Übersetzungsprobleme*. Peter Lang.

Timofeeva, Larissa. (2009). La desautomatización fraseológica: un recurso para crear y divertir. *Investigaciones lingüísticas en el siglo XXI*, 249-271.

Urizar, Ruben. (2012). *Euskal lokuzioen tratamendu konputazionala*. [Doktorego tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco.

Urizar, Ruben, Alegria, Iñaki, Odriozola, Juan Carlos eta Ezeiza, Nerea. (2009). Euskarazko hitz anitzeko unitate lexikalen tratamendu konputazionala. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, *43*(1-2), 891-908.

van Lawick, Heike. (2013). Apunts sobre fraseologia i per a l'anàlisi traductològica d'unitats fraseològiques. In Llum Bracho Lapiedra (Ed.), *El corpus COVALT: un observatori de fraseologia traduïda* (129-161. or.). Shaker.

Zamarripa, Pablo. (1913). *Manual del Vascófilo*. Wilsen Editorial.

Zuluaga, Alberto. (1997). Sobre funciones de fraseologismos en textos literarios. *Paremia, 6*, 360-640.

Zuluaga, Alberto. (1999). Traductología y fraseología. *Paremia*, *8*, 537–549.

3. Dokumentazio-baliabideak

Atal honetan, gaur egun bai sarean bai paperean aurki ditzakegun dokumentaziorako baliabide batzuk zerrendatu eta deskribatuko dira, baliagarriak izan daitezkeenak alemanezko testu bateko UFak identifikatu eta ulertzeko eta euskarazko itzulpenetarako baliokide posibleak aurkitzeko. Alemanezko eta euskarazko hiztegi elebakarrak aipatuko dira, fraseologikoak eta orokorrak. Corpusetan oinarritutako euskarazko hitz-konbinazioei ere egingo zaie erreferentzia. Baliabide elebidunei dagokienez, alemana-euskara hiztegiari egingo zaio erreferentzia, baina zeharkako beste batzuk ere aipatuko dira, alemana-gaztelania corpusa eta alemana-gaztelania hiztegi fraseologikoak, hain zuzen ere, ez daukagu eta alemana-euskara hiztegi fraseologiko bereziturik. Schellheimer-ek (2015, 262. or.) alemana eta katalanerako aipatzen duen gauza bera gertatzen da alemana eta euskararekin: bi hizkuntza hauen arteko azterketa fraseologikoak ugaritu arren azken urteetan, ez dagoela bi hizkuntza horiek konbinatzen dituen hiztegi fraseologikorik[9]. Horrez gain, honako hau gaineratzen du UFak biltzen dituzten baliabide lexikografikoen inguruan: «Durante el análisis que hemos llevado a cabo, se han hecho patentes las carencias que presentan muchas obras lexicográficas fraseológicas a este efecto. Solo alguna de las obras de referencia consultadas incluyen información sobre el uso de los fraseologismos registrados, en la mayoría de los casos en forma de la marca diasistemática que se puede atribuir a la unidad en cuestión. Otras informaciones, como contextos o paráfrasis explicativas que pueden ilustrar las funciones en diferentes contextos y apuntar a restricciones de uso, se encuentran más raramente» (Schellheimer, 2015, 307. or.). Hala ere, ez dugu ahaztu behar, Sarasolak eta Landak (2020, 130. or.) aipatzen duten legez, "[a]zken hamar-hamabost urtean, aitzinamendu ikusgarria izan du[ela] euskal hiztegigintzak", eta zuzeneko bidea hartu ezin badugu ere, zeharka aurkituko ditugu baliabideak UFen itzulpenean lagunduko digutenak.

[9] Lan honetatik kanpo geratuko dira itzultzaile automatikoak eta hizkuntza eredu handietan oinarritutako baliabideak.

3.1. Alemanezko hiztegi fraseologikoak

3.1.1. Online

-Redensarten Index

2001eko maiatzetik eskuragarri dagoen alemanezko UFei eskainitako webgune honen egilea Peter Udem alemaniarra da. Webgunean irakur daiteke jasotzen diren UFak honako hauek direla: *Redensarten*, *Redewendungen*, *idiomatische Ausdrücke*, *Sprichwörter* eta *Umgangsprache*. Badirudi, beraz, gutxienez, lokuzioak eta esaera zaharrak biltzen direla.

Udem-en hitzetan, UFak (*Redewendungen* edo *Idiome*, haren terminologia erabiliz) gure eguneroko bizitzaren parte dira, eta guztiok erabiltzen ditugu hizkuntza osatzen duten elementu prefabrikatu horiek. Egilearen arabera, hizkuntzak ikasten dituztenentzat dira bereziki zailak, ulermena oztopatzen dietelako edo ez dituztelako beti hiztegietan aurkitzen, lagunarteko UFak bereziki[10].

Hainbat baliabide biltzen dira Udemen webgunean (ariketak, jokoak, bideoak, liburu aipamenak, eta abar), baina guk hiztegiari erreparatuko diogu. Bilaketa tresna orrialde nagusian aurki dezakegu, eta 6. irudian ikus daitezkeen aukerak eskaintzen ditu:



6. irudia: Redensarten Index-eko bilatzailea

Lehenik eta behin, bilatu nahi den hitza edo hitzak idatzi behar ditugu. Demagun alemanezko *hoch und heilig* UFa bilatu nahi dugula. Hiru hitzak

[10] https://www.redensarten-index.de/info.php

idatzi eta defektuz datozen aukerak aldatzen ez baditugu, 527 emaitza agertzen zaizkigu gaur-gaurkoz (hiru hitzetako bat hiztegiak jasotzen duen sarreraren batean agertzen bada, emaitzen zerrendan agertuko zaigulako). Ziur baldin bagaude bilatu nahi dugun UFa gutxienez hiru hitz horiez osatuta dagoela, komeni da bilaketa-baldintzetan (*Suchbedingung*) *alle Wörter* aukeratzea, eta ez defektuz klikatuta agertuko zaigun *nach Relevanz*, gomendatutako aukera izan arren. Modu horretara, emaitza bakarra agertuko zaigu:

7. irudia: Redensarten Index-eko bilaketa-emaitza

Kasu honetan, hiru atal nagusi ditu sarrerak: UFa bera, esanahia eta iruzkin osagarriak. Hiru aditzekin agertu ohi dela adierazten da (*versprechen*, *beteuern*, *schwören*); hau da, alde batetik, aldatzen ez den binomioa daukagu (*hoch und heilig*), eta aditzaren hutsunea betetzeko aukera ezberdinak, bestetik. Osagai finko eta aldakorrez osatutako UF baten aurrean gaude, hortaz, 2.1.2. azpiatalean ikusi bezala. UFaren beheko aldean agertzen diren hiru irudiak estekak dira: UFa beste hiztegi batzuetan bilatzeko estekak biltzen ditu liburu formako irudiak, UFa *Redensarten Index*-en zenbat aldiz kontsultatu den jakin daiteke grafiko itxurako irudian klik eginez eta aldaketa-proposamenak bidaltzeko aukera eskaintzen du azken irudiak (Ä). Esanahiaren atalean (*Bedeutung*), UFak zer esan nahi duen azaltzeaz gain, sinonimoak kontsultatzeko aukera dago, S irudian klik eginda. Azkenik, iruzkin osagarrietan, UFa lagunartekoa dela adierazten da kasu honetan, eta UFaren jatorriari buruzko informazioa gehitzen da.

Atal horiez gain, hiztegi-sarreretan maiz agertzen dira bilatutako UFak jasotzen dituzten adibideak (*Beispiele*), zeinak baliagarriak diren UFak testuinguruan ikusi eta, erabileraren bidez, ulertzeko.

-Kollokationenwörterbuch

Lau urteko iraupena izan zuen proiektu baten emaitza da kolokazio-hiztegi hau. Annelies Häcki Buhofer-en gidaritzapean gauzatu zen, baina hainbat izan ziren proiektuan parte hartu zuten adituak[11].

Egileek zehatz-mehatz definitzen dituzte kolokazioak. Gutxienez bi hitzez osatuta dauden eta maiz erabiltzen diren hitz-konbinazio tipikoak dira, *leise Töne*, *Abschied nehmen*, *zu vorgerückter Studen*, *schweren Herzens* edo *in Strömen regnen*, kasu. Ez ditugu eguneroko komunikazioko alderdi aktibo gisa ikusten, baina finkoak dira. Horrexegatik, hizkuntza erabiltzen dugunean, ez ditugu hutsetik sortzen, unitate gisa berrerabiltzen baizik. Eta horrexegatik ere, modu konbentzionalean edo ez markatuan idatzi edo hitz egin nahi badugu, garrantzitsua da hizkuntza bateko kolokazioak ezagutzea[12].

Egileen helburua izan zen maila aurreratua duten hizkuntza-ikasleei zuzendutako eta corpusetan oinarritutako hiztegia sortzea. Abiapuntua 2000 lemaz osatutako zerrenda izan zen, hainbat corpus eta liburu aztertu ostean sortua, eta hitz horiek hainbat corpusetan kontsultatu eta gero lortzen zituzten kookurrentzia-emaitzak eskuz analizatu zituzten, helburu zuten hiztegirako aproposak ziren sarrerak aukeratzeko.

Online-hiztegian [13] kolokazioak bilatzeko, nahikoa da bilatu nahi dugun hitza irudian agertzen den laukian idaztea (guk *versprechen* aditza bilatzeko eskatu diogu, adibide gisa):

[11] https://kollokationenwoerterbuch.ch/web/projekt/team/
[12] https://kollokationenwoerterbuch.ch/web/projekt/
[13] Hiztegiaren paperezko edizioa ere badago: Häcki Buhofer, Annelies, Dräger, Marcel, Meier, Stefanie eta Roth, Tobias. (2014). *Feste Wortverbindungen des Deutschen. Kollokationenwörterbuch für den Alltag*. Francke.

8. irudia: Kollokationenwörterbuch

Sarrera honetan ikus dezakegu nola antolatzen den informazioa. Alde batetik, *versprechen* aditza zein adjektibo, adberbio eta izenekin batera agertu ohi den ikus dezakegu, eta, bestetik, kolokazioaren forma, bere osotasunean, adibidez hornitua. Arreta ematen du hiztegi honetan ere *etw hoch und heilig versprechen* hitz-konbinazioa agertzen dela. Bai Udem-en hiztegian bai kolokazio hiztegi honetan agertzea UF moten arteko muga lausoen erakusle izan daiteke, 2.2. kapituluan aipatu bezala.

3.1.2. Paperean

***-Duden: Redewendungen und sprichwörtliche Redensarten. Idiomatisches Wörterbuch der deutschen Sprache* (1998)**

Alemanezko hitz-konbinazio finkoak eta semantikoki idiomatikoak direnak jasotzen dira hiztegi honetan, baina behin eta berriz aipatu dugun UF moten arteko mugen lausotasuna dela eta, argi adierazten dute hitzaurrean zer ez dugun hiztegi honetan aurkituko; hala nola kolokazioak (*ein Hund bellt*), preposizio jakin bat eskatzen duten aditzak (*an (Geister) glauben*), finkoak ez diren alderaketazko UFak (*weiß wie Schnee*), alemanezko *Funktionsverbgefüge* delakoak (*eine Entscheidung treffen*), termino fraseologikoak (*faradayscher Käfig*), ohiturazko formulak (*guten Tag)*, kalko fraseologikoak (*das Gesicht verlieren*) eta perpaus mailako UFak, atsotitzak

(*wer wagt, gewinnt*) edo aipuak (*auch du, mein Sohn Brutus*) kasu. Horiek guztiak baztertuta ere, 10000 UFtik gora biltzen dira hiztegi honetan.

Sarrera guztietan aurki dezakegu UFaren definizioa (letra etzanez) eta adibide bat edo batzuk. Libururen batetik jasoak direnean, iturria adierazten da parentesi artean. Kasu batzuetan, iruzkinak gehitzen dira (gezi beltz batez markatuak). Adibide berarekin jarraituko dugu eta *hoch* bilatu:

hoch: Hoch und Nieder (veraltend): *jedermann:* Hoch und Nieder war herbeigeströmt, um dem siegreichen Heerführer zu huldigen.
► Mit dieser Formel sind die hohen und die niedrigen, also alle Gesellschaftsschichten gemeint.
[jmdm.] etwas hoch und heilig versprechen, beteuern o. Ä.: *[jmdm.] etwas mit allem Nachdruck versprechen, beteuern o. Ä.:* Die kleine Avril, so beteuert er hoch und heilig, habe er niemals zuvor gesehen (Bild u. Funk 21, 1966, 45). Sie mussten Velazquez hoch und heilig versprechen, ihn zu besuchen (Cotton, Silver-Jet 132).
jmdm./für jmdn. zu hoch sein (ugs.): *von jmdm. nicht verstanden werden, zu schwierig sein:* Ich kapiere das nicht, das ist mir einfach zu hoch. Das kannst du wohl nicht begreifen, dass ich dir sage, ich warte hier auf Bescheid, ich muss hier sitzen, sonst geht der Hase mir aus der Schlinge? Das ist wohl zu hoch für dich? (Fallada, Jeder 200).
... Mann hoch (ugs.): ... *Mann an der Zahl:* Wir waren neun Mann hoch. Im Esszimmer droben finden wir die Miliz, ... an die zwanzig Mann hoch (Th. Mann, Buddenbrooks 19). ... zu drei Mann hoch mussten sie an den schweren, bauchigen Schubkarren des Städtischen Bauhofes ziehen (Küpper, Simplicius 12).
► Die Angabe meint eigentlich, dass die betreffenden Personen in ihrer ganzen Größe hoch aufragend vor jemandes Blick erscheinen.
jmdm. etwas hoch anrechnen: ↑anrechnen. **höherer Blödsinn:** ↑Blödsinn. **im hohen Bogen hinausfliegen:** ↑Bogen. **jmdn. in hohem Bogen hinauswerfen:** ↑Bogen. **jmdm. den Brotkorb höher hängen:** ↑Brotkorb. **es ist höchste Eisenbahn:** ↑Eisenbahn. **das höchste der Gefühle:** ↑Gefühl. **höhere Gewalt:** ↑Gewalt. **bei jmdm. in hohen Gnaden stehen:** ↑Gnade. **zu hoch gegriffen sein:** ↑greifen. **jmds. Herz**

9. irudia: Duden (fraseologia hiztegia)

9. irudian ikus daitekeen moduan, UFaren izendapen osoa eta gero, batzuetan, erabilerari dagokion markaren bat agertzen da; lagunarteko UFa dela adieraziz (*ugs.*) edo zaharkitua dagoela (*veraltend*).

Bilaketak egiteko moduari dagokionez, bilatu nahi dugun UFari erreparatu eta UF horretan esanahia duen lehen hitza edo hitzik garrantzitsuena zein

den erabaki behar dugu. Kasu honetan, *[jmdm.] etwas hoch und heilig versprechen, beteuern* UFaren kasuan, alegia, *hoch* sarreraren baitan aurkituko dugu. Baina hiztegiaren egileek aitortzen duten moduan, ez da beti erraza zehaztea zein den UF baten gako-hitz nagusia. Gauzak horrela, kasu konkretu honetan, adibidez, *heilig* eta *versprechen* sarreretan ere agertzen da UFaren forma eta *hoch* sarrerari erreferentzia, 10. irudian ikus daitekeen moduan.

versprechen: **jmdm. goldene Berge versprechen:** ↑Berg. **jmdm. das Blaue vom Himmel herunter versprechen:** ↑blau. **jmdm. etwas in die Hand versprechen:** ↑Hand. **etwas hoch und heilig versprechen:** ↑hoch.

10. irudia: Duden (fraseologia hiztegiko sarrera bat)

-*Schemann: Deutsche Idiomatik* (2011)

Hiztegi mardulago baten aurrean gaude, 33000 UF inguru biltzen dituena, eta, horrenbestez, argi ikusten da fraseologia modu zabalean ulertzen dela hemen. Garrantzia ematen zaie UFen marka estilistikoei (literarioa, lagunartekoa, formala, jasoa, behe-mailakoa, eta abar), zeinak letra etzanez jasota agertzen diren, ezinbestekotzat jotzen delako hiztegiaren erabiltzaileek jakitea sortzen ari diren testuan (idatzizkoa izan zein ahozkoa) UF jakin bat erabiltzea aproposa den ala ez.

UFaren formari dagokionez, letra lodiz markatuta agertzen dira UFaren nahitaezko elementuak, eta, ondorioz, markarik gabekoak hautazkoak dira. Esate baterako, *versprechen*, sarrerara jotzen badugu, lehen UFaren kasuan ikus daiteke *etwas* beste hainbat osagairekin ordez daitekeela (*einiges*, *manches*, *viel,* eta abar), eta horiek ez direla letra lodiz markatzen.

versprechen: **sich etwas**/einiges/manches/viel/allerhand/wenig/nichts **von** jm./etw. **versprechen**

1. … Vater hatte sich so viel von dem neuen technischen Direktor versprochen, hatte geglaubt, der würde die Mängel in unserer Werkzeugherstellung endlich beheben … Aber wie man jetzt sieht, hätte er sich das Geld für diesen Mann sparen können.

2. Hattest du dir von den Verhandlungen eigentlich etwas versprochen? – Offengestanden, ja. Ich hatte angenommen, man würde wenigstens zu einem halbwegs vernünftigen Kompromiß kommen.

jm. **hoch und heilig versprechen**, daß/…/(jm. etw. hoch und heilig versprechen) *path* – jm in die **Hand** (hinein) versprechen, daß …/…

mehr versprechen, als man halten kann

… Nun versprich mal nicht mehr, als du halten kannst, Erich! Bis Juli kannst du doch die Arbeit unmöglich machen! – Warum denn nicht? Wenn ich zwei Leute zusätzlich einstelle … Also, Herr Moser, bis Mitte Juli haben Sie die ganze Veranda fix und fertig.

versprechen und halten ist/(sind) **zweierlei**

… Aber er hatte mir doch fest versprochen … – Versprochen, versprochen! Merke dir, Klaus: versprechen und halten sind zweierlei. Wenn die Leute nur die Hälfte von dem einhalten würden, was sie versprechen, sähe die Welt anders aus.

11. irudia: Schemann-en hiztegi fraseologikoa («versprechen» sarrera)

Adibide horrekin berarekin jarraituz, hiztegi honetan argi ikusten da ez dela definiziorik jasotzen, baizik eta adibide bidez ematen dela aditzera UFaren esanahia. Horrez gain, adibideek UFa testuinguruan kokatzea dute helburu, eta izan ditzakeen esanahi bakoitzeko adibide bana jasotzen da hiztegi honetan. Esan beharra dago, definiziorik eman ez arren, adibideak oso baliagarriak direla UFak aditzera eman nahi duena ulertzeko, esanahia parafraseatzeko ahalegina nabarmena baita. Irudiko bigarren UFaren kasuan, *hoch und heilig versprechen*, ez dugu adibiderik aurkitzen, sinonimotzat jo daitekeen beste UF bat baizik: *jm in die Hand (hinein) versprechen, daß*. UF horretan aurkituko dugu adibidea:

jm. **in die Hand** (hinein) **versprechen**, daß …/… *path*

Der Rolf hat mir in die Hand versprochen, mir ein Auto zu schenken, wenn ich die Arbeit bis Weihnachten fertig hätte, und jetzt sagt er, er hätte kein Geld. – Was man verspricht, muß man halten; um so mehr, wenn man die Hand darauf gegeben hat.

12. irudia: Schemann-en hiztegi fraseologikoa («jm. in die Hand (hinein) versprechen, daß» sarrera)

Adibidean ikusten da UF hori erabiltzen dela zerbait promes egiten duzunean, baina ez da nolanahiko promesa, azken esaldian ikus daitekeen moduan («um so mehr, wenn man die Hand darauf gegeben hat»): promes egiten dena bete egin behar da, eta are gehiago hitza ematen denean. Beste adibide garbi bat *Anschluß suchen* UFan ikus dezakegu. Parentesi artean testuingurua deskribatzen da: aita bat bere seme-alabei zuzentzen zaie eta atzerritik haien etxera etorritako mutil baten inguruan hitz egiten die.

Galderan UFa bera aurki dezakegu (Findet ihr es den nicht ganz normal, daß der Georg **Anschluß sucht**?), eta hurrengo esaldian, UFak esan nahi duena beste hitz batzuk erabiliz adierazten da, hain zuzen ere, *die Jungen und Mädchen dort* ***kennenlernen*** (tokian tokiko neska-mutilak ezagutu, haiekin harremana izan).

Anschluß suchen
(Der Vater zu seinen Kindern über einen auswärtigen Jungen, der zu Gast ist:) Findet ihr es denn nicht ganz normal, daß der Georg Anschluß sucht? Wenn ihr bei ihnen zu Gast wärt, würdet ihr doch auch die Jungen und Mädchen dort kennenlernen wollen.

13. irudia: Schemann-en hiztegi fraseologikoa («Anschluß suchen» sarrera)

3.2. Alemanezko hiztegi orokorrak

Jarraian, alemanezko bi hiztegi orokor aipatuko dira. Biak ala biak kontsulta daitezke paperean eta online, baina guk azken horretan jarriko dugu arreta, online-bertsioa delako eskoletan erabiltzen dena. Hemen aipatuko ditugunak baino askoz aukera gehiago eskaintzen dituzte hiztegi hauek, baina gure aztergaia UFak izanik, horiei erreparatuko diegu ikasmaterial honetan.

-Das DWDS-Wörterbuch

Hiztegi honetan, alemanezko 260000 hitz baino gehiagoren inguruko informazioa aurkituko dugu, bai formari bai esanahiari dagokionez, eta etengabe ari da eguneratzen eta zabaltzen, sarreran adierazten duten legez[14].

Webgunea[15] irekiaz bat, argi eta garbi ikusten da non dagoen bilaketa-tresna. Beste behin, *hoch* adjektiboa bilatzen badugu, adieren gunera jo baino lehen, fraseologiaren ikuspuntutik interesgarria den informazioa dagoela ikus dezakegu.

[14] https://www.dwds.de/d/wb-dwdswb
[15] https://www.dwds.de/



14. irudia: DWDS hiztegia («hoch» sarrera)

Izan ere, informazio gramatikala, ahoskera edo hitz-elkarketen inguruko informazioa eta gero, *hoch* lema osagai gisa duten *Mehrwortausdrucke* edo hitz anitzeko esamoldeak aurki ditzakegu, eta hitz honen kasuan zerrenda ez da makala. Noski, *hoch und heilig* binomioa ere hortxe dago, eta estekan klik egiten badugu, hiztegi honetan sarrera gisa jasotzen dela ikusiko dugu.

15. irudia: DWDS hiztegia («hoch und heilig» sarrera)

Erabileraren inguruko informazio garrantzitsua aurkitzen dugu adieren atalean. Jasoa dela, maiz txantxa moduan erabiltzen dela ematen digu aditzera, eta zerbait promes egitearekin edo norbaiti zerbait ziurtatzearekin harremana duela. Esanahia eta gero, semantikoki lotura estua duten beste esamolde batzuetarako estekak dauzkagu (*Stein und Bein schwören, jmdm.*

sein Wort geben), eta, jarraian, kolokazioak ditugu, hauek ere interesgarriak ikasmaterial honen testuinguruan; hain zuzen ere, *schwören*, *geloben* eta *versprechen* aditzekin batera agertu ohi dela adierazten da, funtzio adberbialean. UFaren erabilera erreala ikusteko, adibideetara jo dezakegu, zeinak hurrenkera kronologiakoan agertu ohi diren, berrienetik zaharrenera.

Aipaturikoez gain, hiztegi honetan badago UFak markatzeko erabiltzen den beste kategoria bat: *Phrasem*. Horien bidez esamolde finkoak (*feste Wendungen*) jasotzen direla aipatzen dute [16]. Aurretiaz aipatu dugun *Anschluss* lemaren kasuan, adibidez, *im Anschluss* UFa jasotzen da. Esan nahi duena zehazteaz gain, adibideak ere jasotzen dira.


3. PHRASEM:
(im **Anschluss** *(= (sequentiell, zeitlich) unmittelbar nachfolgend, nachgeordnet)*)
BEISPIELE:
im **Anschluss** an das Programm wird getanzt WDG
im **Anschluss** an die Sitzung WDG
allgemeiner, landschaftlich, veraltet im **Anschluss** *(= beiliegend)* übersenden wir Ihnen die Quittung WDG

16. irudia: DWDS hiztegia («Anschluss» sarrera)

-Beste batzuk:

Duden hiztegia

Online-bertsioa esteka honetan kontsulta daiteke: https://www.duden.de/woerterbuch. Bilaketak egiten ditugunean, bilatu nahi dugun hitzarentzat sarrera bat baino gehiago badago hiztegian, zerrenda modura agertuko zaizkigu, eta guri interesatzen zaigun hori aukeratuko dugu. *Hoch*en kasuan, adibidez, *hoch* adjektiboa hautatuko dugu, eta ez *Hoch* substantiboa edo adberbioa, besteak beste. Sarrera horretan ikus daitekeen moduan, UFak *Wendung, Redensart, Sprichwörter* izenburua daramaten lauki horietan jaso ohi dira.

[16] https://www.dwds.de/d/wb-dwdswb



17. irudia: Duden hiztegia

Wortschatz Leipzig

Hainbat hizkuntzetarako hiztegiak kontsulta daitezke webgune honetan, alemana edo euskara kasu. Corpusean oinarrituak dira; hau da, interneten eskuragarri dauden dokumentuak bildu eta hiztegirako prestatzen dituzte. Hitz bakoitzarentzat datu estatistikoak, adibideak eta inguruan agertu ohi diren hitzetarako estekak jasotzen dituzte[17].

3.3. Euskara barne hartzen duten hiztegi fraseologikoak

-Labayru hiztegi fraseologikoa: euskara ‹-› gaztelania

Euskara eta gaztelaniaren arteko online-hiztegi fraseologiko hau 2015. urtean sortu zuen Labayru Fundazioak. Webgunean irakur daitekeenez, Labayru Fundazioa 1977an sortu zen eta, ordutik, hainbat esparrutan lan egin du, horietako bat lexikografikoa, euskal kultura eta hizkuntza sustatu, ikertu eta ezagutarazteko helburuarekin. Lan lexikografiko horretatik sortu da, alde batetik, hiztegi elebiduna (euskara-gaztelania, gaztelania-euskara), bi liburukitan argitaratua eta sarean eskuragarri dagoena. Fundazioaren bigarren proiektu lexikografiko garrantzitsua *Labayru hiztegi fraseologikoa* da. Haien hitzetan, hiztegi fraseologikoa edo esamoduen hiztegia sortu dute. Baina zer dira esamoduak?: «Esamoduak sortzen dira, berba kate jakin batek esangura adierazgarri berezia hartzen dauenean. Ideia bat adierazoteko moduak, hizkuntza batetik bestera berba kate diferenteakaz adierazoten dira. Esamodu hiztegi hau, gaztelania-euskera hizkuntzen arteko parekotasunak emoteko ahalegin bat da» (https://www.labayru.eus/project/hiztegia/).

[17] https://wortschatz.uni-leipzig.de/de/documentation

Hiztegiaren unitate fraseologikoak hautatzeko abiapuntua gaztelaniaren unitate lexiko garrantzitsuenak izan dira. Termino kuantitatiboetan, web orritik kontsulta daitekeen laguntza-dokumentuan adierazten da hiztegi fraseologikoak 3500 lokuzio, 18000 baliokidetza, 4500 adibide eta 1000 sinonimo dituela.

Bilatzailean defektuz euskara eta gaztelaniaz bilaketa egiteko aukera aktibatuta dagoenez, bilatu nahi dugun unitate fraseologiko hori euskaraz zein gaztelaniaz sar dezakegu. Demagun «ahuntz» hitzarekin osatzen diren UFak bilatu nahi ditugula. Behin hitza sartuta, hiztegiak lau emaitza ematen dizkigu, eta 18. irudian ikusten dena horietako bat da: *ahuntzaren gauerdiko eztula ez izan*. Lagunarteko (col.) aditz lokuzio (ad. lok.) gisa sailkatuta dago, eta gaztelaniazko baliokide bakarra eskaintzen digu hiztegiak: *no ser moco de pavo*. Jarraian, adibide jakin batean ikus dezakegu UF honen erabilera euskaraz eta gaztelaniaz. Kasu honetan, batuerako (bat) marka dauka, baina badaude bizkaierazko marka duten adibide eta UFak ere. Sinonimotzat jotzen diren beste hainbat euskarazko UFrekin amaitzen da sarrera.



18. irudia: Labayru hiztegi fraseologikoa

Aipatu dugun moduan, kasu honetan aditz-lokuzio baten aurrean gaude, baina beste hainbat UF mota ere jasotzen dira hiztegian. Laguntza-dokumentuan, euskaraz honako marka hauek erabiltzen direla ikus daiteke: adb. lok. (adberbiozko lokuzinoa), adj. lok. (adjektibozko lokuzinoa), ad. lok. (aditz-lokuzinoa), interj. lok. (interjekzinozko lokuzinoa), iz. lok. (izen-lokuzinoa), lok. (lokuzinoa).

-Intza proiektua

Euskarazko lokuzioak sarean kontsultatzeko beste gune garrantzitsu bat *Euskal Lokuzioak Sarean* izeneko Intza Proiektua da, zeinaren helburu nagusia den «euskaldun guztiei euskarazko lokuzioak ezagutzeko eta lantzeko aukera emango dien gunea doan eskaintzea» (https://intza.armiarma.eus/info.htm). Abiapuntu gisa 80ko hamarkadan Koldo Izagirrek argitaratutako euskal lokuzioen bilduma (Izagirre, 1981) hartu zuen proiektuko lan-taldeak —Joxan Elosegik, Josu Landak eta Koldo Izagirrek berak osatuak—, eta Izagirreren lokuzio txukunduekin eta taldekideek berek zein beste laguntzaile askok han eta hemen bildutako beste askorekin (6000tik gora guztira), sarean kontsulta daitekeen lokuzio-bilduma plazaratu zuten 2004. urtean.

Lokuzioa zer den definitzeko Coseriu eta Isacenko-n oinarritzen dira: «perpausaren elementu bezala (lexia) jokatzen duen bi termino edo gehiagoren (lexia konposatua) konbinaketa finkatua da, zeinaren adiera unitarioa (hizkuntz-komunitateari "ezaguna" egiten zaiona) osagarrien adiera normalen batuketaz, besterik gabe, argitzen ez baita» (https://intza.armiarma.eus/beroa/zerden.htm). Lehen kapituluan (ikus 2.1.1.) UFen ezaugarri gisa aipatu ditugun polilexikalitateaz, egonkortasunaz eta idiomatikotasun semantikoaz baliatzen dira, beraz, hiztegi honetako egileak lokuzioak definitzeko.

Bai hizkera bizia eta adierazkorra erabili nahi duenari, bai idazketa eta itzulpenaren profesionalari, bai eta irakasle eta ikasleari gerta dakioke baliagarri bilduma hau (https://intza.armiarma.eus/info.htm#xml), eta erabili nahi duenak bi aukera izango ditu: alde batetik, kontzeptuen araberako bilaketa egitea «Kontzeptuen aurkibidea» erabiliz (bilaketa onomasiologikoa) edo bilaketa librea, «Bilaketa» estekan klik eginez. Azken kasu horretan, bilatu nahi den hitza edo hitz multzoa non bilatu nahi dugun adierazi behar dugu: lokuzioan, azalpenean, bietan edo gaztelerako edo frantseseko lokuzioetan.

Demagun, euskaraz «adar» hitzarekin sortzen diren lokuzioak bilatu nahi ditugula. Bilaketa laukian hitz hori sartu eta lokuzioan bilatzeko eskatzen badiogu tresnari, 31 emaitza lortzen ditugu: *adar bat falta*, *(inori) adar bildu*, *adarjotzaile* [18], *(euria) adarka ari*, *adarra jo*, *adarra sartu*, eta abar. Ikus dezagun aipatutako lehena:

19. irudia: Intza proiektua

Azalpenean, lokuzioak zer esan nahi duen ikus dezakegu («zoroa izan»). Jarraian, hainbat iturritatik jasotako adibideak jaso ohi dira: kasu honetan bakarra, Damaso Intzaren *Naparroako euskal-esaera zarrak* bildumatik jasoa, alegia. Aipatutako kontzeptuen araberako bilaketa onomasiologikoa egin nahiko bagenu, «eromena» kontzeptura jo beharko genuke lokuzio hau aurkitzeko. Azkenik, gaztelaniazko eta frantsesezko baliokideak proposatzen dira.

-Gotzon Garate

Ia 30 urtez, zazpi probintzietako baserrietan euskal atsotitzak biltzen ibili zen Garate. 1967. urtean ekin zion biltze-prozesuari, eta lehen emaitza 1998. urtean eman zuen argitara. Bildumaren izena: *27173 Atsotitzak, refranes, proverbs, proverbia*. Izenburutik ondoriozta daitekeen moduan, euskarazko (14458), espainolezko (5208), ingelesezko (4045) eta latinezko (3462) atsotitzak biltzen ditu lan mardul honek. Urte batzuk geroago, 2003an, bigarren edizioa argitaratu zen (30466 atsotitzez osatutakoa), eta, gainera, atsotitz-bilduma

[18] Adibide honekin ikus dezakegu hitz-elkartuak ere jasotzen direla bilduma honetan.

hau sarean kontsultatzeko aukera ere badago (https://gga.ametzagaina.eus/bbk/htdocs/hasiera.htm).

Hiru atal nagusitan banatzen da sareko hiztegiko webgunea: hasiera-orria, bilduma eta kontsulta. «Bilduma» barruan hiztegiaren ezaugarriak laburbiltzen dira, eta horiek lau hizkuntzatan (euskara, gaztelania, ingelesa eta latina) aurki daitezke. Gauza bera gertatzen da «Kontsulta»rekin; bilaketa bildumaren lau hizkuntzetan egiteko aukera eskaintzen da.

Atsotitzen bilaketa lema bidezkoa da, webgunean bertan ohar batean adierazten den legez, eta atsotitzean ageri behar duten 4 hitz sartzeko aukera ematen du bilatzaileak. Bilaketaren emaitzan lortzen dugun atsotitz bakoitzaren aurreko gezitxoan klik egiten badugu, beste hizkuntzetako ordainak agertzen dira eskuineko zutabean.

Euskarazko «pare» lema sartzen badugu bilatzailean, konparaketazko atsotitzak bilatzeko xedez, 26 atsotitzeko zerrenda jasoko dugu, eta horietako bat aukeratuz gero gezian klik eginez, eskuineko aldean gaztelaniazko, ingelesezko eta latinezko baliokideak agertuko zaizkigu. 20. irudiko adibidean (*Mihi gaiztoa, sugearen pare*), hizkuntza guztietan dauzkagu baliokideak, baina 1-1eko baliokidetasun hori ez da beti gertatzen.



20. irudia: Gotzon Garateren hiztegia

-Refranero multilingüe

Beste bilduma honetan ere jasotzen dira euskarazko atsotitzak, baina, kasu honetan, abiapuntua gaztelaniazko UFak dira, eta horietatik abiatuta bilatu dira baliokideak hogei hizkuntzatik goratan, euskara barne.

Bildumak jasotzen dituen hizkuntza guztietan egin daitezke bilaketak, tresnak eskaintzen dituen bi bilaketa moten bidez: sinplea eta aurreratua. Aurreratuan, hizkuntzaz gain, beste hainbat iragazkiren bidez bilatu nahi den atsotitza muga daiteke, hala nola atsotitz mota edo ideia giltzarria. Sinonimoak, antonimoak, hiperonimoak eta aldaerak ere eskainiko dizkigu, aukera horietan klik eginez gero.

«Pare» hitza bilatuz gero, tresnak ematen dizkigun zortzi emaitzetako bat *A zer parea, karakola eta barea!* atsotitza da. Hitzez hitzeko itzulpenaz gain, maiz erabiltzen den UFa dela esaten digu, eta Garateren bildumatik eta ahozko iturri batetik jasoa dela. Euskarazko atsotitz honen baliokidea beste 12 hizkuntzatan ikusteko aukera ere eskaintzen digu.



21. irudia: Refranero multilingüe

3.4. Euskarazko hiztegiak eta hitz konbinazioak

3.4.1. Hiztegi elebakarrak

-Euskaltzaindia

Hiztegiaren online-bertsioa etengabe eguneratzen ari da eta, azken kontsultaren arabera, 52.091 forma ditu guztira[19]. Unitate fraseologikoak ere biltzen dira hiztegi honetan, webgunean ikus daitekeen 5. tutorialean aipatu

[19] Azken kontsulta: 2025eko urriaren 10ean.

legez. Definitu ere egiten dituzte: «Unitate fraseologikoak hitz konbinazioak dira, osagaien esanahien baturaz aparteko esanahia dutenak»[20].

Bilaketa aurreratuak aukera ematen du kategoria gramatikalaren arabera kontsultak egiteko, eta UFekin zuzenean lotutako kategoria lokuzioena da: adberbio-lokuzioak, aditz-lokuzioak eta izen-lokuzioak aukera ditzakegu bilatzailean. Hala ere, nahiz eta beren-beregi lokuzioak bakarrik markatu, hiztegiak unitate fraseologiko ugari jasotzen ditu zeharka, beste kategoria batzuen barruan ere —hala nola interjekzioak, juntagailuak, lokailuak edo onomatopeiak— UFak aurkitzen baititugu. Lema baten sarrera osatzen duten elementuetan ere topa ditzakegu UFak. Esate baterako, 22. irudiko *gezur* hitzaren adibideetan ikus dezakegu lema hori zein adjektiborekin erabili ohi den edo, beste modu batean esanda, zein izen+adjektibo kolokazio dauzkagun euskaraz: *gezur handia* edo *gezur galanta*, kasu. Horrez gain, azpisarreren eta ohiko lexien barruan, aditz-lokuzioak aurki ditzakegu sarrera honetan (*gezurra iruditu*, *gezurra erran*, *gezurra esan*), eta, esaera zaharrak ere proposatzen dizkigu: *gezurrak buztana labur* eta *isilik dagoenak ez dio gezurrik*. Esaera zaharren definizioa ere ematen da aipatu berri dugun tutorialean: «Egile ezezaguna izaten dute, oso asapaldikoak izaten dira eta esperientziak ematen duen herri jakinduria jasotzen dute»[21].

22. irudia: Euskaltzaindiaren hiztegia

[20] https://youtu.be/SaxYspIefI4
[21] https://youtu.be/SaxYspIefI4

-*EEH* (*Egungo Euskararen Hiztegia*)

Hamabost urteko lanaren emaitza da *Egungo Euskararen Hiztegia*. Hitzen adierari ez ezik, horien erabilerari garrantzi handia ematen zaio hiztegi honetan. Erabileraren isla testu-corpusetan aurkitzen dugunez, bi corpus hartu dira aintzat hiztegi honen sorrera prozesuan: *Ereduzko Prosa Gaur* eta *Egungo Testuen Corpusa*. Hitz bakoitzak izan ditzakeen adierez gain, adiera horien esanahia argitzeko adibideak jasotzen ditu hiztegiak, behin eta berriz errepikatzen diren biko edo hiruko hitz multzoekin batera. 2024ko urtarrilaren 26ko datuen arabera, 639.044 hitz multzo biltzen ditu hiztegi honek.

Adibide berarekin jarraituz, «gezur» hitza bilatzen badugu hiztegi honetan, lehenik eta behin, hitzaren definizioa ematen da, eta, ondoren, hainbat UF zerrendatzen dira; ezaugarri ezberdinak dituzten batzuk aipatzearren: *gezurretan, gezur beltz, gezur esan/erran, gezur-estali* edo *gezurra badirudi ere*. Esan beharra dago, gainera, ez dela zerrenda hutsa, maiz hitz multzoen definizioak ere jasotzen direla, eta *gezur* hitza aukeratuz gero, hitzaren eta hitz multzoek aipatutako corpusetan dituzten agerpenak kontsulta daitezke, 23. irudian ikus daitekeen moduan:

12 ***gezur beltz*** fede gaiztoz eginiko salaketa gezurrezkoa. ik **kalumnia.**

Gizatxar horren hizketa zuriak eta **gezur beltzek** tronpatu gaituzte. **Patxi Zubizarreta**

Ez du otaino deus egin, ezarri ere du bere burua gaitzerranetarik gerizatua, eta **gezur beltzari** betari behar zaio orduan nagusitu. **Jon Muñoz**

Ez ditut urrundanik ere sinesten, eta egingo nuke **gezur beltz** izugarri bat baizik ez direla: sobera dakit ordea gaiztakeriak, baita egiantzekotasun handirik ez dutenak ere, zenbatez indartzen eta bizkortzen diren, eta zenbatez ere den orobat ezabagaitz uzten duten zirrara. **Jon Muñoz**

13 ***gezur esaka*** *adlag*

Lajos asaldatu eta **gezur** esaka hasi zen. **Ander Irizar**

13 ***gezur esan/erran*** *(**21** agerraldi, **10** liburutan eta **3** artikulutan; ETCn **137** agerraldi)* ik beherago **20.**

Gezur esaten jarraitzen zuen malkoak begietan. **Ander Irizar**

Urragarriena, halare, beste guziek zuk baino dotoreago **gezur** esaten dutela ikustea da. **Patziku Perurena**

Gezur erraiteko beldurrik gabe. **Joan Mari Irigoien**

-Bai **-gezur** esan nuen. **Matías Múgica**

14 ***gezur-estali*** *izond* gezurrezkoa dela nabari ez dena.

Gezurrezkoa, iritzitakoa, baina erraz antzean sinesteko modukoa, **gezur**-estalia. **Iñaki Segurola**

Izen bat eta izan bat (gezurrezkoa, iritzitakoa, baina erraz antzean sinesteko modukoa, **gezur**-estalia). **Iñaki Segurola**

Badirela gutxienez bi terrorismo klase, gutxi bezain **gezur**-estaliak, [...] bedeinkazio eta laguntza handien jabe direnak, eta terrorismoaren definizioetan sartzetik aise libratzen direnak, biak ere. **Iñaki Segurola**

23. irudia: EEH

-Elhuyar

Elhuyar hiztegi eleaniztuna online kontsulta daiteke, eta, Sagarzazuk (2023, 169) aipatzen duenaren arabera, euskaraz gehien kontsultatzen den baliabide linguistikoetako bat da. 2023an, esate baterako, 60 milioi kontsulten langa gainditu zuen, *Elhuyar*-ek berak adierazten duen legez[22].

Hiztegiaren online-bertsio honetan, lexiak eta lokuzioak dira berariaz markatzen diren unitateak. Izen + izen (*ore ama*) eta izen + adjektibo (*adimen artifizial*) konbinazioak jasotzen dira lexia gisa, eta lokuzioen artean aditzezkoak (*negar egin*) eta adberbialak (*esate baterako*) aurki ditzakegu. Aipatu ditugun hitz anitzeko unitateez gain, hitz bakarrez osatutakoak ere jasotzen dira lokuzio gisa markatuta; adibidez, *umetan* edo *eskura* gisakoak. Ez dugu azterketa sakonik egin, baina ikusi dugu esaldi mailako UF batzuk ere jasotzen direla: *zozoak beleari ipurbeltz* esaera zaharra edo *Bai, zera!* enuntziatu fraseologikoa, besteak beste. 2024ko apirilean[23], euskarazko 5650 lokuzio zeuden erregistratuta hiztegi honetan.

3.4.2. Hiztegi elebiduna

-Alemana-euskara: hiztegi orokorra (Elena Martínez)

Hiztegiko hitzaurrean, bai euskaraz eta bai alemanez, esapide edo *Wendung* ugari agertzen direla dio Elena Martínez hiztegiaren egileak: «Hiztegia, gaurko hiztunak maizen erabiltzen duen oinarrizko hitz-ondareaz osatua dago, hitz teknikoak barne. Eta hitzak nola erabili behar diren erakusteko, azalpenak dakartza itzulpenaren aurretik, bai eta jakintza-arloaren nahiz gramatika-kategoriaren aipamenak ere. Adiera desberdinen artean bereizten eta aukeratzen laguntzeko dira, bestalde, emandako adibide eta esapide ugariak» (2006, IX). Paperezko bertsioan adierazten denaren arabera, 32.400 sarrera inguru eta 4.000 adibide eta esapidez osatua dago hiztegia. Kontsultak ordenagailuan egin nahi dituen erabiltzaileak itzuli+ tresna barraren bidez egin dezake. Horretarako, luzapena deskargatu behar da

[22] https://www.elhuyar.eus/eu/prentsa-aretoa/elhuyar-hiztegiak-60-milioi-kontsultako-muga-gainditu-du.
[23] Eskerrak eman nahi dizkiot Klara Ceberiori *Elhuyar* hiztegiaren inguruko datuak helarazteagatik.

(https://www.euskadi.eus/itzuliplus/), eta, behin hori eginda, alemana-euskara hiztegia atzitu dezakegu. 24. irudian, adibidez, alemanezko hitz bat bilatu dugu (*Sorge*), eta horren euskarazko baliokidea agertzen zaigu eskuineko aldean. Hasteko, bi baliokide ematen dizkigu hiztegiak, eta, ondoren, adibide gisa, bi UF agertzen zaizkigu: *sich Sorgen machen* eta *keine Sorge!*



24. irudia: Alemana-euskara hiztegia

3.4.3. Corpusetan oinarritutako euskarazko hitz konbinazioak

Euskarazko ohiko hitz-konbinazioen bila ari bagara, beste aukera bat corpusetatik erauzitako hitz konbinazioetan bilaketak egitea da. Euskararen kasuan, *Egungo Testuen Corpusak* (*ETC*) eta *Web-corpusen atariak* eskaintzen dute aukera hori.

*ETC*k, 21. mendeko ereduzko corpusak, hainbat testu-mota biltzen ditu (literaturakoak, kazetaritzakoak, telebistakoak, eta abar), eta gaur-gaurkoz 430,7 milioi testu-hitzez osatua dago. Lema bat bilatzen badugu, *esku* kasu, web-orriaren beheko aldean konbinatorien atala aurkituko dugu. Bertan, bilatu dugun hitz hori zein beste lemekin konbinatzen den ikusiko dugu. Beste lema horien kategoria (adjektiboa, aditza, izena) ere zehaztu dezakegu. *Esku* lemarekin agertu ohi diren aditzak bilatu ditugu, adibide gisa, eta, 25. irudian, lortutako emaitza batzuk ikus daitezke:

	pisua	ager.
esku hartu	10,17	37.431
esku utzi	9,64	18.183
esku luzatu	8,71	3.844
esku egon	8,59	29.454
esku heldu	8,21	6.034
esku geratu	7,98	5.587
esku jarri	7,49	6.771
esku garbitu	7,28	1.469
esku igurtzi	7,05	560
esku oratu	6,75	321
esku altxatu	6,70	1.236
esku gelditu	6,39	2.072
esku eduki	6,30	3.526
esku erori	6,09	1.082

25. irudia: Konbinazioak ETC corpusean

Gezian klik eginez gero, hitz-konbinazioak testuinguruan ikus daitezke.

Web-corpusen atarian, bestalde, Elhuyarrek garatutako Konbitz tresna erabiltzen da euskarazko hitzen konbinazio-patroiak (izena+aditza, izena+izena, izena+izenondoa, izenlaguna+izena, adberbioa+aditza eta postposizioak) erauzi eta lortutako emaitzak neurri estatistikoen bidez ordenatzeko[24].

Adibide gisa, bilaketa bera egin dezakegu beste tresna honekin ere (hau da, *esku* lema zein aditzekin erabili ohi den):

[24] Baliabide honi buruzko informazio gehiago aurki daiteke haien webgunean: https://dabilena.elhuyar.eus/info#link9



26. irudia: Patroi-bilaketak web-corpusen atarian

26. irudian ikus daitekeen moduan, tresna honek emaitzak sailkatu egiten ditu izenak daraman kasuaren arabera (aditzaren subjektua edo objektua den, instrumentalean dagoen...).

3.5. Zeharkako baliabideak (alemana-gaztelania)

Honako hau diote Sarasolak eta Landak konbinazio-hiztegien balioari buruz: «Testu bat idazten edo itzultzen ari garenean, maiz gertatu ohi da hitz bat —edo hitz konbinazio bat— "mihi puntan" izatea, baina une horretan ahora edo burura ez etortzea. Horretarako ere balio dute hiztegiek, idazleen eta itzultzaileen lagungarri, eta begien bistakoa da konbinazio hiztegi batek horri buruz egingo lukeen aportazioa» (2020, 133. or.). Alemana eta euskararen arteko konbinazio-hiztegi baten faltan, baina, zeharkako baliabideak (alemana-gaztelania corpusa eta alemana-gaztelania hiztegi fraseologikoak, esate baterako) baliagarriak izan daitezke hizkuntza horietako hitz-konbinazioak unitate fraseologiko diren identifikatzeko, alde batetik, eta, bestalde, UF horien gaztelaniazko ordainak kontsultatzeko.

-Alemana-gaztelania: *PaGeS corpusa*

Alemanetik gaztelaniara eta gaztelaniak alemanera itzulitako testuez osatutako online-corpusa dugu hau[25]. Aitziber Elejalde lankideak eta biok corpus honen erabileraren inguruko xehetasunak bildu genituen

25 https://www.corpuspages.eu/corpus/search/search?lang=es&format=&search_context=0

dokumentu batean, zeina ADDIn kontsulta daitekeen: https://addi.ehu.es/handle/10810/74748. Unitate fraseologikoak bilatu nahi baditugu kontuan hartu beharrekoak nabarmenduko ditugu bertan.

Alde batetik, garrantzitsua da aintzat hartzea unitate fraseologiko bat bilatu nahi dugunean eta hainbat hitz sartzen ditugunean bilatzailean, besterik adierazi ezean, guk adierazitako ordenan egiten direla bilaketak eta hitzen arteko distantzia, gehienez ere, bi hitzekoa izango dela. Ordenak eta hitzen arteko distantziak emaitzetan eraginik izan ez dezaten, bilaketa-operadoreak erabil daitezke (AND, esate baterako). Bilaketa aurreratuak ere egin daitezke hitzen arteko distantzia zehazteko.

Bestalde, badaude UF batzuk (binomioak, adibidez) oso egonkorrak direnak eta bere horretan bila ditzakegunak. Horretarako, komatxoak erabiltzen dira. Honela bilatuko genuke, adibidez, alemanezko *kreuz und quer* UFa:



27. irudia: PaGeS corpusa

Komatxoak erabil daitezke, halaber, UF baten osagai finkoak mugatzeko, eta gainerako osagai aldakorrak komatxoetatik kanpo jaso daitezke.

-Alemana-gaztelania: hiztegi fraseologikoak

Zerrenda gisa aurkeztuko dira alemana-gaztelania hiztegi fraseologiko batzuk.

Linean dagoen hau ezagutzen dugu: *Phraseologisches Lexikon* (Fernández López, 2020): http://hispanoteca.eu/lexikonphraseologie.asp

Paperezko formatuan, berriz, beste hauek: Balzer *et al.* (2010), Nedwed eta Romeu Nedwed (2009) eta Schemann *et al.* (2023).

Bibliografia

Häcki Buhofer, Annelies, Dräger, Marcel, Meier, Stefanie eta Roth, Tobias (2014): *Feste Wortverbindungen des Deutschen. Kollokationenwörterbuch für den Alltag*. Francke.

Sagarzazu, Eneko (2023). Perla bila: hizkuntza baztertzailea Elhuyar Hiztegian. *Senez*, *54*, 169-180.

Sarasola, Ibon eta Landa, Josu. (2020). Euskararen konbinazio hiztegi baterako. In Itziar Laka (Ed.), *Pello Salabururi esker onez* (130-136. or.). EHU Argitalpen Zerbitzua.

Schellheimer, Sybille. (2015). *La función evocadora de la fraseología en la oralidad ficcional y su traducción*. [Doktorego tesia]. Universitat Pompeu Fabra.

Paperezko hiztegiak

Balzer, Berit, Moreno, Consuelo, Piñel, Rosa, Raders, Margit, Schilling, M. Luisa. (2010). *Kein Blatt vor den Mund nehmen. No tener pelos en la lengua. Diccionario fraseológico alemán-español. Phraseologisches Wörterbuch Deutsch-Spanisch*. Editorial Idiomas Hueber.

Izagirre, Koldo. (1981). *Euskal Lokuzioak*. Hordago.

Martínez, Elena. (2006). *Euskara-alemana, alemana-euskara hiztegia*. Elkar.

Nedwed, Susanne eta Romeu Nedwed, Carlos. (2009). *Diccionario fraseológico. Español y Alemán. Phraseologisches Lexikon. Deutsch und Spanisch*. Serbal.

Redewendungen und sprichwörtliche Redensarten. (1998). Duden.

Schemann, Hans. (2011). *Deutsche Idiomatik: Wörterbuch der deutschen Redewendungen im Kontext*. De Gruyter.

Schemann, Hans, Mellado Blanco, Carmen, Buján, Patricia, Iglesias, Nely, Larreta, Juan Pablo, Mansilla, Ana (2013): *Idiomatik Deutsch-Spanisch*. Buske.

Online-hiztegiak

Berlin-Brandenburgischen Akademie der Wissenschaften. (d.g.). *DWDS – Digitales Wörterbuch der deutschen Sprache. Das Wortauskunftssystem zur deutschen Sprache in Geschichte und Gegenwart*. https://www.dwds.de/

Dudenredaktion. (d.g.). *Duden online*. https://www.duden.de/woerterbuch

Elhuyar. (d.g.). *Elhuyar hiztegia*. https://hiztegiak.elhuyar.eus/

Euskaltzaindia. (d.g.). *Euskaltzaindiaren hiztegia*. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegianbilatu&task=hasiera&Itemid=1693&lang=eu-ES

Fernández López, Justo (2020*): Phraseologisches Wörterbuch Spanisch und Deutsch. Diccionario fraseológico español y alemán*. http://hispanoteca.eu/lexikonphraseologie.asp

Garate, Gotzon. (d.g.). *Atsotitzak, refranes, proverbes, proverbia*. https://gga.ametzagaina.eus/bbk/htdocs/hasiera.htm

Intza Proiektua. Euskal lokuzioak sarean. (d. g.). https://intza.armiarma.eus/

Labayru Fundazioa. (2015). *Labayru hiztegi fraseologikoa*. https://hiztegia.labayru.eus/ED?locale=eu

Sarasola, Ibon. (2008-2024). *Egungo Euskararen Hiztegia*. https://www.ehu.eus/eeh/

Sevilla Muñoz, Julia, Zurdo Ruiz-Ayúcar, M. I. Teresa (2009). *Refranero multilingüe*. Instituto Cervantes (Centro Virtual Cervantes). https://cvc.cervantes.es/lengua/refranero/Default.aspx

Udem, Peter. (2001). *Redensarten Index*. https://www.redensarten-index.de/suche.php

Corpusak

Elhuyar. (d.g.). *Web-corpusen ataria*. https://dabilena.elhuyar.eus/

PaGeS (Parallel Corpus German Spanish). (d.g.). https://www.corpuspages.eu/corpus/about/about?lang=es

Sarasola, Ibon, Salaburu, Pello, Landa, Josu. (d.g.). *Egungo Testuen Corpusa (ETC)*. https://www.ehu.eus/etc/

4. Alemanetik euskararako unitate fraseologikoen itzulpena

4.1. Itzulpen-aukerak

Ikerketaren ikuspuntutik eta itzulpen- eta interpretazio-ikasketen testuinguruan, unitate fraseologikoen irakaskuntzaren gaia ez da asko jorratu duela gutxira arte (Corpas Pastor *et al*. 2020, 75. or.), baina unitate hauen garrantzia ezin ukatuzkoa da bai ikasleen itzulpen-gaitasuna landu nahi denean bai itzulpenen kalitatea ebaluatzeko orduan (Corpas Pastor *et al*. 2020, 75-76. or.).

Alemanetik euskararako literatura-itzulpenen azterketa batek erakutsi du (Sanz-Villar, 2015) itzultzaileak ahalegintzen direla jatorrizko testuko UFak xede-hizkuntzako UF bidez itzultzen[26]. Ikertzaile batzuek itzulpen aukera hori lehenestea proposatzen dute: «[M]any authors (Corpas Pastor, 2003; Pedersen, 1997; Roberts, 1998; Svensén, 2009) have widely argued that, to the extent possible, idioms should be rendered in the TT through a phraseological equivalent, given the fine shades of meaning they can convey and the richness they purvey to speech» (Corpas Pastor *et al*. 2020, 76). Xede-hizkuntzako «kutxa fraseologikoan» bila ari garenean, Corpas Pastorren (2003) terminologia erabiliz, hainbat itzulpen-aukerarekin topo egin dezakegu, eta horietako bat da, hain zuzen ere, UF bidezko itzulpena jatorrizko testuan UFa daukagunean.

4.1.1. UF->UF

1. taulako lehen adibidean, esate baterako, alemanez eta euskaraz oso antzekoak diren somatismoak aurki ditzakegu. Hirugarren atalean aipatutako *Redensarten Index* webgunean irakur daitekeenaren arabera, alemanezko UFak, *mit leeren Händen* (hitzez hitz, 'esku hutsekin'), 'oparirik gabe' esan nahi du testuinguru jakin honetan, eta euskaraz osagai lexiko eta esanahi fraseologiko berbera duen UFa erabiltzen da: «esku hutsik». Bigarren adibideko alemanezko UFaren euskarazko baliokidean, berriz, ez

[26] Atal honetan jasotzen diren adibide asko aipatutako tesitik jaso dira: Sanz-Villar, 2015. Lan honetan, baina, adibide batzuk baino ez dira bildu; gehiago sakondu nahi bada, aipatu tesia kontsulta daiteke esteka honetan: https://addi.ehu.es/handle/10810/15128.

da jatorrizko UFaren irudia mantentzen —izan ere, hitzez hitz honakoa esan nahi du: 'nire hankak nire eskuetan hartzea'—, baina euskarazko beste UF bat erabiltzen da, testuinguruan egoki txertatzen dena eta jatorrizkoaren esanahia jasotzen duena: 'ziztu bizian alde egin'.

	Jatorrizko testua	Xede-testua
1	„Wie entsetzlich! Da fällt mir gerade ein, dass wir etwas vergessen haben! Das Wichtigste!" „Was denn?", fragte mein Schwager Kalbfell. „Das Gastgeschenk!", stöhnte Herr Jonathan. "Oder wollt ihr den Kaiser **mit leeren Händen** willkommen heißen? Das dürfen wir uns nicht antun!" (BUS_de)	—Hau izugarria! Oraintxe gogoratu zait zerbait ahantzi zaigula! Gauzarik garrantzizkoena gainera! —Zer da? —galdegin zion Idisko nire koinatuak. —Oparia! —borbokatu zuen Jonathan jaunak—. Edo **esku hutsik** eman behar al diogu ongietorria Kaiserrari? Ezin dugu halakorik egin! (BUS_eu)
2	Ich **nahm meine Beine in meine Hände**, und zum ersten Mal in meinem so kurzen Leben wünschte ich mir, dass ich Fabi wär, der schnellste Rechtsaußen der Welt. (JV_de)	**Ziztu bizian alde egin**, eta nire bizitza laburrean estreinako aldiz, Fabi izatea desiratu nuen, eskuin hegaleko jokalaririk azkarrena. (JV_eu)

1. taula: UF-›UF

Itzulpen aukera horri lehentasuna eman arren, garrantzitsua da kontuan hartzea badaudela beste aukera batzuk eta batzuetan, gainera, itzulpen-irtenbide neutralagoa proposamen fraseologikoa baino idiomatikoagoa eta jatorragoa izan daitekeela.

Alemanetik euskararako literatur-testuz osatutako corpusean UF jakin batzuen itzulpena aztertzean (Sanz-Villar, 2018), jarraian aurkeztuko ditugun beste itzulpen-aukera hauek behatu ditugu alemanetik euskararako itzulpenetan.

4.1.2. UF-›Neutralizazioa edo UFrik ez erabiltzea xede-testuan

Jatorrizko testuan UF bat baldin badaukagu, beste aukera bat xede-testuan UFrik ez erabiltzea da. 2. taulako alemanezko testuko UFak, *sich in den*

Haaren haben somatismoak, euskarazko itzulpenak dioen hori esan nahi du: 'Streit miteinander haben' (*Redensarten Index*), liskarra izan, alegia. Ez da, beraz, UFrik erabiltzen xede-testuan («beti haserre dabiltza»), baina jatorrizko UFaren esanahai fraseologikoa jasotzen da xede-testuan. Antzeko egoera ikus dezakegu taula bereko bigarren adibidean: jatorrizko testuan *(jemandem) die / seine Hand drauf geben* UFa daukagu, zeinak hitzez hitz 'zerbaiten gainean eskua eman' esan nahi duen, eta xede-testuan «hitzeman» aditza erabiltzen da. Egia da lexia sinple gisa jasotzen dela aditz hau hiztegietan, baina aditza osatzen duten bi osagaiak kontuan hartuz, lehenengo adibidea baino fraseologikoagoa dirudi. Edonola ere, bietan lortzen da jatorrizkoan adierazten dena euskaraz ematea, fraseologia maila gorabehera.

	Jatorrizko testua	Xede-testua
1	Die **haben sich dauernd in den Haaren**, und ab und zu muß ich einfach dazwischenfahren". (EL_de)	**Beti haserre dabiltza**, eta inoiz edo behin tartean sartu behar izaten dut. (EL_eu)
2	„Du läßt die Finger von dem, Herbert, der gehört dir nicht. **Gibst mir die Hand drauf**?" (BA_de)	"Ez hadi arrimatu ere egin, Herbert, ez duk hire arazoa. **Hitzemaidak**. (BA_eu)

2. taula: UF-›neutralizazioa

Behatutakoaren arabera (Sanz-Villar, 2015 edo 2024), euskaraz erabili ohi den baliabide ez-fraseologikoa, jatorrizkoan UFa dagoenean, erreduplikazioa[27] edo hitzen errepikapena da. Euskarazko onomatopeien azterketa hizpide duen artikulu batean, Ibarretxe-Antuñanok dio (2012, 137-138. or.) erreduplikazioa ohiko hizkuntza-baliabidea dela euskaraz, Europako beste hizkuntza batzuetan ez bezala. Batzuetan, esan nahi den hori indartzeko erabiltzen da, «para expresar un uso enfático» (2012, 138. or.), Ibarretxe-Antuñanoren hitzetan. Horien adibide ditugu, «gorri-gorria», «zabal-zabalik», «txiki-txikia». Beste batzuetan, berriz, esanahi banatzailea du: «aldian-aldian», «banan-banan» edo «lerro-lerro», kasu.

[27] https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&Itemid=326&lang=en&layout=lth_detail&search=erredundantzia&view=frontpage

	Jatorrizko testua	Xede-testua
1	Auch sie hätten, wenn sie in unsere Lage gekommen wären, **um kein Haar** anders gehandelt. (BUS_de)	Gure egoeran aurkitu izan balira, guk bezala, **berdin-berdin**, jokatuko zuten. (BUS_eu)
2	Es sind die kunterbunten Farbraupen, die **Stück für Stück** unter den Blättern hervorgeschlüpft kommen! (ALEUSIKAS, Kawamura, 2014)	Hostoen azpitik **banan-banan** ateratzen diren koloretako beldarrak dira! (ALEUSIKAS, Kawamura, 2014)

3. taula: UF-›beste baliabide erretoriko bat

3. taulako lehen adibidean, «ile» hitzarekin osatutako UFa erabiltzen da alemanez (*um kein Haar*) pertsona jakin batzuek berdin jokatuko luketela adierazteko, eta, euskaraz, errepikapen bidez («berdin-berdin») indartu egiten da adierazi nahi dena. Bigarren adibidea *Raupenwürfeln* (*Koloretako harrak*, euskaraz) haurrentzako jokoaren arauetatik ateratako pasartea da. Bertan, beldarrak *Stück für Stück* (hitzez hitz, 'atal bat bestearen ondoren') ateratzen dira, eta, euskarazko itzulpenean, «banan-banan». Aurreko adibidean ez bezala, errepikapen hau lexikalizatuta dago eta hiztegietan aurki dezakegu, bai orokorretan (*Elhuyar hiztegia*, *EEH* edo *Euskaltzaindiaren hiztegia*n, esate baterako) bai espezializatuetan (*Labayru hiztegi fraseologikoa*n).

4.1.3. UF-›Kopia (kalkoa / hitzez hitzeko itzulpena)

UF baten egitura zuzenean transferitzen/kopiatzen/imitatzen denean xede-hizkuntzan, baina sortzen den hitz-konbinazioa ez denean UF xede-hizkuntzan. Marco-k (2009, 848. or.) aipatzen duen moduan, kalko-teknika bat da. Honela definitzen da EBEn (Euskaltzaindia, 2018, 291. or.) kalko linguistikoa: «Hizkuntzalaritzan, hizkuntza batek beste hizkuntza baten hitz edo esamolde bat itzuliz sortzen duen forma». Itzulpen-aukera hau ez da maiz begi onez ikusten, eta gauza bera gertatzen da *interferentzia* kontzeptuarekin. Alabaina, Garziak (2005, 16. or.) aipatu legez, «interferentzia zein kalkoaren okertasun hori balioespena da, eta ez deskribapen hutsa, eta, beraz, balioespen guztiak bezala, eztabaidagarri».

Kalkoen Behatokiko hitzaurrean aipatzen denaren harira, euskararen berezitasunei erreparatzea ezinbestekoa iruditzen zaigu: «Jende askok besterik uste badu ere, lexiko-sorkuntzarako mekanismo emankor eta oparoa da, berez, kalkobidea edozein hizkuntzatan; are gehiago, beren terminologia garatzen eta normalizatzen ari diren hizkuntza gutxituen kasuan. Euskaraz, esate baterako, etengabe ari gara hitz eta termino berriak sortzen, eta haietako asko eta asko kalko bidez sortuak ditugu (ikus Alberdi 2009, Alberdi 2010a, Alberdi 2010b): bereziki, kalko semantikora, lexikora eta fraseologikora jotzen dugu euskarazko termino berriak sortzeko (hiztegi orokorrak eta bereziki espezializatuak arakatu besterik ez dago jokaera horretaz jabetzeko)»[28].

Beraz, kalkobidea itzulpen-aukeratzat har dezakegu, baina ahaztu gabe badirela kalko desegokiak (Euskaltzaindia, 2018). Kalko oker horien harira, honakoa aipatzen da EBEn (Euskaltzaindia, 2018, 291. or.): «Euskararen kasuan, zuhurtziaz begiratzeko kontua da, hizkuntza gutxitua izateaz gainera, inguruan indar handiko hizkuntzak baititu». Garziak aipatzen du itzulpenetan areagotu egiten dela kalkoen arriskua (2005, 16 eta 22. or.), euskara hizkuntza gutxitua izateaz gain eta norberaren elebitasun/eleaniztasun egoera gorabehera, erdarazko testua delako abiapuntua. Alemanetik euskararako itzulpenaren kasuan, gainera, bi indar handiko hizkuntza ditugu, gutxienez: bata jatorrizko hizkuntza esplizitua, alemana, eta ez esplizitua, «ezkutukoa», bestea, edo besteak (espainola edo/eta frantsesa).

Interferentzia bikoitz edo aipatu bi indar horien eraginaren adibide garbia dugu beheko hau. Schemann-en hiztegi idiomatikoan jasotzen den alemanezko UFa —*lassen Sie sich überraschen*— antzeko UF bidez itzul daiteke gaztelaniara: *déjese/déjate sorprender*. Bi eredu horiei jarraiki, *ALEUSIKAS* corpusetik jasotako proposamen honetan kalko bidezko itzulpena egiten da:

[28] https://www.ehu.eus/ehg/kalkoak/?p=hitzaurrea

	Jatorrizko testua	Xede-testua
1	Nirgendwo kann man sich so genussvoll„ verlaufen ", ohne sich dabei zu verirren: Spazieren Sie einfach los und **lassen Sie sich überraschen**. (ALEUSIKAS, Grazer Sehenswürdigkeiten)	Inon ezingo zara hain gustura «galdu», noraezean zabiltzala sentitu gabe: joan paseatzera eta **utzi zaitez harritzen**. (ALEUSIKAS, Grazer Sehenswürdigkeiten)

4. taula: UF->kopia

Beste batzuetan, berriz, kalko bidezko itzulpenak itzulpen idiomatikoa sortzen du, nahiz eta aipatu bi indarren eragina nabarmena izan. Hori gertatzen da, esate baterako, UF zinetikoekin (ikus 2.2.1.). Alemanezko *sich die Hände reiben* UFa izango litzateke horren adibidea, zeinarekin, testuinguruaren arabera, bi esanahi aktiba daitezkeen: hitzez hitzekoa, eskuak igurztea, eta fraseologikoa, besteen zoritxarragatik poztasuna sentitzea edo, besterik gabe, pozik egotea. 5. taulako adibidean, bi esanahi horiek aktibatzen dira.

	Jatorrizko testua	Xede-testua
1	Und zum Schluß wird er **sich** hochbefriedigt zurücklehnen und **die Hände reiben**, weil ihm ein so wunderbar trauriges Lied in c-Moll gelungen ist. (DDL_de)	Azkenean aulkia atzera bota eta **eskuak igurtziz** pozik agertuko da bere buruarekin horren doinu eder bezain tristea atera zaiolako. Do minorrean. (DDL_eu)

5. taula: UF->kopia (UF zinetikoa)

Kontsultatutako hiztegi gehienetan ez da «eskuak igurtzi» aurkitu *sich dei Hände reiben* edo gaztelaniazko *frotarse las manos* UFaren baliokide gisa. Intza Proiektuko *Euskal Lokuzioak Sarean* webgunean, «eskuak berotu» jasotzen da *frotarse las manos*en baliokide gisa, eta *Labayru hiztegi fraseologikoa*n esanahi fraseologikoa biltzen duten baliokideak aurki ditzakegu: «pozik egon», «pozarren egon», «pozik zoratzen egon». Ildo

beretik, *Elhuyar Hiztegia*n ere «pozik/pozarren egon» eta «pozez zoratzen egon» jasotzen dira *frotarse las manos*en baliokide gisa. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n aurkitu dugu berriki sarrera gisa, eta, oharretan adierazten den legez, «eratorri-konposatu berria da, egokia eta beharrezkoa», «azpisarrera gisa onartzekoa» [29], 2023. urteko proposamenaren arabera. Aztertutako alemanetik euskararako itzulpenetan (guztiak 2023. urtea baino lehen argitaratuak), bestalde, «eskuak igurtzi» erabiltzen da. Sortzen den irudia argia da eta aditzera eman nahi dena helarazten da hitz-konbinazio horren bidez. Beraz, Garziak aipatzen duenaren ildotik, kalkoen auzi honetan adi egotea garrantzitsua da, baina gehiegikerietan erori gabe: «ezer ontzat emateko beldurrean edo guztiari okerra bilatzeko obsesioan, alegia (sorgin-ehizan bezala gertatzen baita: bilatzen duenak beti aurkituko du, baita ez dagoen lekuan ere)» (2005, 17. or.).

4.1.4. Omisioa

Sanz-Villarrek (2015) alemanetik euskaratutako UFak aztertu zituen bere doktorego-tesiaren testuinguruan egindako itzulpen-azterketan, eta ikusi zuen jatorrizko testuetatik abiatuta aztertutako UF guztietatik (616 guztira) oso gutxi zirela itzulpenetan ezabatu zirenak (%3,5 inguru). Gainera, 6. taulako adibidean ikus daitekeen legez, UFaren ñabardura itzulpenean berariaz jaso ez arren, beste elementu batzuen bidez esanahia gordetzen da batzuetan. Jatorrizko testuko *durch und durch* binomioak 'guztiz', 'erabat', 'goitik behera' esanahia izan dezake. Xede-testuan ez da ñabardura hori jasotzen esaldiaren lehen zatian, baina, bigarrenean, berrikuntzak ez dituela *batere* maite nabarmentzen da, eta, horrekin, argi geratzen ohitura gizona dela.

	Jatorrizko testua	Xede-testua

[29] https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegianbilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu-ES&nondik=0&zenbat=50&non=osagaiakHasi&query=eskuak+igurtzi&subcMota=&pos=&usgDomain=&usgGeo=&usgBeste=&usgReg=

1	Ich bin ein Gewohnheitsmensch **durch und durch** und liebe keine Neuerungen. (DA_de)	Ohitura-gizona naiz eta berrikuntzak ez ditut batere maite. (DA_eu)

6. taula: UF-›omisioa

4.1.5. UFrik ez edo ezer-›UF/Sorkuntza fraseologikoa

Jatorrizko testuan UFrik ez egonagatik xede-testuan UFa txertatu duten kasu dezente aurkitu genituen alemanetik euskararako literatura testuz osatutako corpusean (Sanz-Villar, 2015). Batzuetan UFa erabiltzea aukera «naturala» zen; beste batzuetan, aukera naturala edo idiomatikoa izateaz gain, xede-testuetan xede-hizkuntzako egitura konbentzionalagoen alde egiten da, jatorrizko testuen aldean. 7. taulako lehenengo adibidean, esate baterako, alemanezko testuan ez daukagu UFrik, *und* juntagailuz lotzen diren bi adjektibo baizik, eta xede-testuan, berriz, *zur eta lur* binomioa erabiltzen da (Sanz-Villar, 2015, 358 or.).

Itzulpen-aukera honekin lor daitekeen beste efektu bat 7. taulako bigarren adibidean ikus dezakegu. Bertan, UFrik ez -›UF itzulpen-aukeraren bidez, xede-testuan jatorrizkoan esaten dena indartzen da, ideia bera (*sprachlos*ekin aditzera eman nahi dena) bi aldiz agertzen delako: hitzik gabe eta zur eta lur[30].

	Jatorrizko testua	Xede-testua
1	"Ja, habe vielleicht ich Sie mißverstanden?" fragte der Advokat ebenso **erstaunt und verlegen** wie K. "Ich war vielleicht voreilig". (DP_de)	—Oker ulertu ote dizut? —galdetu zuen abokatuak, K bezain **zur eta lur**—. Agian arinegi jardun dut. (DP_eu)
2	Ich war **sprachlos**. (HF_de)	Hitzik gabe ni, **zur eta lur**. (HF_eu)

7. taula: UFrik ez-›UF

4.2. UFak eta literatura

UFak ez ditugu testu-mota jakin batzuetan soilik aurkitzen, baina, Koller-ek (2007, 607. or.) aipatzen duen moduan, testu jakin batzuetan UFek eskaintzen dituzten aukerak gehiago ustiatzen dira. Egileak berariaz aipatzen ditu

[30] Interesgarria izango litzateke ikertzea xede-sistema ahulagoetan, jatorrizkoan UFrik ez dagoenean, itzulpenetan UFak txertatzeko joera handiagoa den, beste hizkuntza indartsuago batzuen aldean. Hizkuntza horren —euskararen, gure kasuan— baliabide linguistikoak garatzeko ahalegin gisa uler daiteke (Toury, 2012, 140. or.).

literatura-testuak, publizitate-testuak eta testu politikoak: «Ein und derselbe phraseologische Ausdruck kann in deutlich verschieden markierten Situationen oder Textsorten verschiedene Wirkungen haben. Das breite Spektrum dieser potentiellen Werte zeigt sich besonders deutlich in literarischen Texten, Werbetexten und politischen Texten».

Literatura-testuen alorrean, Richter-Vapaatalo-k alemanezko haur-literatura lanak aztertu zituen, bertako fraseologismoen erabilera eta funtzioa deskribatu asmoz. Zazpi idazleren (Erich Kästner, Otfried Preußler, Michael Ende, Christine Nöstlinger, Paul Maar, Kirsten Boie eta Cornelia Funke) liburuak ikertu zituen, eta ondorioztatu zuen UFak haur-literaturan asko erabiltzen direla, eta autore jakin batzuen lanetan —Erich Kästner eta Otfried Preußler, kasu— bereziki nabarmena dela UFen agerpen-maiztasuna: «Darüber hinaus konnte gezeigt werden, dass auch der Umfang der verwendeten Phraseologie bei Kästner sehr groß ist: Die ermittelte durchschnittliche Phraseologiesmendichte in den untersuchten Kästner-Werken liegt weit über der des Vergleichskorpus; lediglich bei Preußler ist die Phraseologismendichte etwa ebenso hoch» (Richter-Vapaatalo, 2007, 301. or.).

Schellheimer-ek (2015) ere Kästner-en liburu baten (*Emil und die Detektive*) gaztelaniarako eta katalanerako itzulpenak aztertu zituen bere tesian, eta honako hau ondorioztatu zuen UFek literatura-testuetan bete dezaketen funtzioari buruz: «[...] la fraseología tiene el potencial de evocar el lenguaje hablado en el marco de la oralidad ficcional y [...] los autores, ya sea de forma deliberada o inconsciente, recurren a estos elementos lingüísticos para construir un discurso» (2015, 304. or.). Beraz, erregistro idatzian ahozkotasunaren ezaugarriak imitatu nahi direnean, idazleek, modu kontziente edo inkontzientean, UFetara jotzen dute.

4.3. Ariketak

1. ariketa

Honako hiru testu hauek irakurri eta testu-azterketen bidez landu:

-DaF-Didaktik für baskische MuttersprachlerInnen (Lindemann eta Babiano López de Sabando, 2019)

-Aus Haut und Knochen (Schiewe, 2019)

-Corona-Pandemie ohne Partner (Vester, 2021)

Mota ezberdinetako UFak dituzten pasarte batzuk aukeratu dira testu horietatik, eta zure egitekoak izango dira 1) zailtasunak sortu dituzten UF horiek identifikatzea eta 2) proposatzen diren itzulpen-aukeretatik egokiena aukeratzea (EGOKI). Geratzen diren itzulpen-proposamenetan adierazi zer hobetuko zenukeen eta nola (HOBETZEKO). Arrazoitu hartutako erabakiak.

<u>DaF-Didaktik für baskische MuttersprachlerInnen</u>

Zunächst gilt für die große Mehrheit, dass sie Kenntnisse in Spanisch und Baskisch mitbringen; für beide Sprachen gilt, dass es sich um die Muttersprache oder eine in der Schulzeit erworbene Zweitsprache handeln kann.

1. Lehenik eta behin, gehienek gaztelaniaren eta euskararen ezagutza dute, biak izan daitezke beren ama hizkuntza edo eskolan ikasitako bigarren hizkuntza.
2. Alde batetik, gehienek gaztelania eta euskara hitz egiten dituzte, ama-hizkuntza nahiz eskolan ikasitako bigarren hizkuntza izan.
3. Hasteko, gehienek gaztelania eta euskera ezagutzen dituzte, batzuek biak dituzte ama hizkuntza eta beste batzuek eskolan ikasi zuten bigarrena.

Darüber hinaus haben alle DaF-Studierenden gemeinsam, dass sie vorher mit dem Englischen Kontakt hatten, und dies zumeist sowohl in der Schule als auch in der Universität.

1. Gainera, DaF didaktikako ikasle guztiek aurretiaz ingelesarekin kontaktua izatearen ezaugarriarekin bat egiten dute, gehienetan bai eskolan baita unibertsitatean ere.
2. Gainera, DaF-eko ikasle guztiek, aurretik ingelesarekin kontaktua izan dute eskolan edo unibertsitatean eta hori dute aman komunean.
3. Gainera, DaF ikasle guztiek ingelesa ere ikasi dute aurretiaz, bai eskolan eta baita unibertsitatean ere, kasu gehienetan.

Mittelfristig zielen wir auf ein Forschungsprojekt, dass [sic] die hier dargelegten Überlegungen systematisieren und didaktische Letilinien und didaktisches Material erarbeiten soll.

1. Epe ertainera, ikerketa-proiektu bat espero dugu, aurkeztutako gogoetak sistematizatzeko eta jarraibideak eta material didaktikoa garatzeko.
2. Epe laburrean, hemen aurkezten diren gogoetak sistematizatuko dituen eta jarraibideak eta material didaktikoa garatuko dituen ikerketa-proiektu batera apuntatzen ari gara.
3. Epe ertainera, ikerketa proiektu bat egiteko asmoa dagu, aurkeztutako gogoetak sistematizatu eta gidalerro eta material didaktikoa sortzea helburu duena.

Aus Haut und Knochen

Du willst nicht wissen, wie es in meinem Zimmer damals ausgesehen hat.

1. Ez duzu nahi jakin ze itxura zuen nire gelak ordu hartan?
2. Ikusi izan bazenu nire logela garaian...
3. Zur eta lur geratuko zinatekeen garai hartan nire logela ikusi izan bazenu.
4. Ez duzu jakin nahi nolakoa zen nire gela gaztetan.

Ich sag nur: Teller, auf denen sich neues Leben gebildet hat.

1. Ideia bat egin dezazun: han zeuden plateretan bizitza sortzen zen.
2. Pentsa, plater zikinetan bizitza sortzen hasia zen.
3. Honako hau bakarrik esango dizut: Bizi propioa zuten platerak.

Ich wollte dir ne Freude machen. Weil du doch immer wolltest, dass wir zusammen Sport machen.

1. Atsegin eman nahi nizun, betidanik nahi izan duzulako gu biok elkarrekin kirola egitea.
2. Zoriontsu egin nahi zaitut, zuk beti nahi izan duzulako nirekin batera kirola egin.
3. Detaile bat egin nahi nizun, beti nahi izan duzulako elkarrekin kirola egin, ezta?

Corona-Pandemie ohne Partner

Faktoren wie Familienstand und Einkommen spielen eine Rolle, aber auch, ob ich gesund und mobil bin, sagt die Sozialarbeiterin.

1. «Egoera zibilak eta soldatak paper garrantzitsua jokatzen dute, baita pertsonaren osasunak edo mugitzeko aukerak ere», dio gizarte langileak.
2. «Familiarekin dugun egoera eta soldata faktore eta rol garrantzitsuak dira, baina baita osasuntsu eta aktibo gauden», dio gizarte langileak.
3. «Egoera zibilak eta soldatak zeresan handia dute/garrantzitsuak dira, baita osasuntsu egoteak eta mugitzeak ere», esan du gizarte-langileak.

Ich kann als Single ja spontane Entscheidungen treffen, ohne auf jemand anderen Rücksicht nehmen zu müssen, kann heute auf der einen Veranstaltung sein und morgen wieder woanders.

1. «Bikoterik ez izateak esan nahi du inori esan gabe har ditzakedala bat-bateko erabakiak, gaur ekitaldi batean egon naiteke hemen eta bihar beste tokiren batean.
2. Bikotekiderik ez izateak erabakiak momentuan hartzeko aukera ematen dit, beste inor kontuan izan gabe. Ekitaldi jakin batean egon naiteke gaur eta bihar, berriz, beste edozein tokitan.
3. "Bikoterik gabe nagoenez, bat-bateko erabakiak har ditzaket beste inor kontutan hartu gabe, gaur ekitaldi batean nago eta bihar auskalo.

Wer sich einsam fühlt, kann depressiv werden.

1. Bakarrik sentitzen diren pertsonak deprimitzeko joera izan dezakete.
2. Bakarrik sentitzen den pertsonak, depresioa jasan dezake.
3. Bakarrik sentitzen dena depresibo bihurtu daiteke.

2. ariketa

Irakurri arretaz alemanezko jatorrizko testu-pasarteak eta horien itzulpen-proposamenak, eta azaldu zer zuzenduko zenukeen eta zergatik.

Auf Wiedersehen, Kinder (Kilb, 2008)

Jatorrizko testua	Xede-testua
Es gibt Söhne von Alleinerziehenden und Töchter von Besserverdienern, doch die Regie tut so, als spiele das keine Rolle.	Guraso ezkongabeen semeak daude, eta baita pertsona dirudunen alabak ere; eta zuzendariak horrek axolarik ez izatea espero du.
Jeden Morgen dreht er in vollkommener Einsamkeit seine Runden, danach wird gefrühstückt, und seit ein paar Tagen ist Anke schwanger.	Wengerrek goizero gosaldu baino lehenago bakardade osoan egiten du korrika, eta duela egun pare batetik Anke haurdun dago.

Raupenwürfeln (Kawamura, 2014)

Jatorrizko testua	Xede-testua
Kribbel, krabbel – was kriecht denn da?	Kri, kra - nor dabil narrasean?
Es sind die kunterbunten Farbraupen, die Stück für Stück unter den Blättern hervorgeschlüpft kommen!	Hostoen azpitik ateratzen diren beldar koloretsuak!
Schade, in deiner Raupe darf keine Farbe doppelt vorkommen, deshalb kannst du leider dein Körperteil anlegen.	Zure beldarrean dagoeneko dagoen kolorea bada ordea, pena bat da, zure beldarrak ezin du birritan kolore berdina izan, beraz, zoritxarrez, ezin duzu gorputz atal hori jarri.

Chaos im Kinderzimmer (Knizia, 2006)

Jatorrizko testua	Xede-testua
Bei Gleichstand gewinnen diese Spieler gemeinsam.	Berdinketa ematen bada, irabazle bat baino gehiago egon daiteke.
Bei Gleichstand gewinnen diese Spieler gemeinsam.	Bi jokalarik berdindu ezkero, biek irabaziko lukete.
Sei schnell, damit alle die Karten zur gleichen Zeit sehen können.	Azkar ibili, jokalari guztiek karta ikus dezaten.
Das war bestimmt der Kobold Chaoti.	Segura aski Chaoti iratxoaren errua da.
Er schleicht sich immer heimlich in fremde Kinderzimmer und bringt alles durcheinander.	Beste haurren geletan sartu ohi da beti eta desordenatu ondoren dena hankagora uzten du.
Was ist denn bloß im Kinderzimmer los? Alle Sachen liegen kreuz und quer im Zimmer verstreut.	Zer ari da gertatzen umeen gelan!? Gauza guztiak gelan sakabanatuta daude.
Nein, es sind nur unterschiedliche Gegenstände zu sehen! Noch passiert nichts!	Ez, elementu ezberdinak bakarrik ikusten dira! Ez da ezer gertatzen!

Digitales Studium (Böldt, 2020)

Jatorrizko testua	Xede-testua
Lenni sucht Anschluss, Lisas Auslandspläne sind geplatzt und Elaf hat sich aus Einsamkeit einen Vogel gekauft. Zu Besuch bei Erstsemestern in der Studentenstadt Jena	Lenni konexio bila dabil, Lisak dagoeneko prest du bere atzerriko egonaldia eta Elafek txori bat erosi du bakardadeari bukaera emateko. Jena hirian lehenengo mailako ikasleei bisita.
12 Uhr aufgestanden, gar kein Bock, schreibt einer.	„12etan esnatuta, bizitzeko gogorik gabe", idatzi du norbaitek.

12 Uhr aufgestanden, gar kein Bock, schreibt einer.	«12:00ak puntuan, eta tiporik ez» idazten du batek.
So geht das ein bisschen hin und her.	Alde batetik bestera mugitzen da.
So geht das ein bisschen hin und her.	Gutxigorabehera badoa. Auskalo nork jarraitzen dituen eskolak ohetik eta nork txandalean.
Elaf, Jeans und schwarzes Top, die Laptop-Kamera abgeklebt, sitzt kerzengerade auf ihrem Stuhl am Schreibtisch.	Elafek galtza bakeroak eta top beltza ditu jantzita. Idazmahiko aulkian dago zain, ordenagailuko kamera itzalita.

3. ariketa

Emil und die Detektive (1929) liburuko pasarte honen euskararako itzulpenean 1) akatsak eta itzulpen-proposamen onak identifikatu eta 2) euskarazko itzulpen berri bat proposatu, honako itzulpen-enkargu hau aintzat hartuz:

Itzulpen enkargua: X argitaletxeak Erich Kästner-en *Emil und die Detektive* liburuaren euskararako itzulpen berri bat argitaratu nahi du. Liburuko lagin bat itzultzeko eskatu dizute, itzulpen-proba gisa. 10 urtetik aurrerako irakurleei zuzendutako liburu honetan, Emil gazteak bakarrik bidaiatzen du trenez Berlinera, amona, osaba-izeba eta Pony Hütchen lehengusinarengana, eta, bidaian, amak eman dion dirua lapurtzen diote. Detektibe bat bailitzan, lapurra bilatzeari ekiten dio, eta horretarako Berlinen ezagutuko dituen hainbat lagunen laguntza izango du. Lagun horietako batzuk azaltzen dira itzuliko duzun pasartean.

Jatorrizko testua

Lässt sich daraus was lernen?

Gegen Abend verabschiedeten sich die Jungen. Und Emil mußte ihnen hoch und heilig versprechen, am nächsten Nachmittag mit Pony Hütchen zum Professor zu kommen. Dann lief Onkel Heimbold ein, und es wurde gegessen. Hinterher gab er der Schwägerin, Frau Tischbein, die tausend Mark und riet ihr, das Geld auf eine Bank zu schaffen.

»Das war sowieso meine Absicht«, sagte die Friseuse.

»Nein!« rief Emil. »Da macht mir das Zeug gar keinen Spaß. Mutter soll sich einen elektrischen Trockenapparat kaufen und einen Mantel, der innen mit Pelz gefüttert ist. Ich weiß gar nicht, was ihr wollt! Das Geld gehört doch mir. Damit kann ich machen, was ich will! Oder nicht?«

»Damit kannst du gar nicht machen, was du willst«, erklärte Onkel Heimbold. »Du bist doch ein Kind. Und die Entscheidung, was mit dem Geld geschehen soll, hat deine Mutter zu treffen.«

Emil stand vom Tisch auf und trat ans Fenster.

»Alle Wetter, Heimbold, bist du ein Dickschädel«, sagte Pony Hütchen zu ihrem Vater. »Siehst du denn nicht, daß Emil sich so darauf freut, seiner Mutter was zu schenken? Ihr Erwachsenen seid manchmal kolossal hart verpackt.«

»Natürlich kriegt sie den Trockenapparat und den Mantel«, meinte die Großmutter. »Aber was übrig bleibt, das wird auf die Bank geschafft, nicht wahr, mein Junge?«

»Jawohl«, antwortete Emil. »Bist du einverstanden, Muttchen?«

»Wenn du durchaus willst, du reicher Mann!«

»Wir gehen gleich morgen früh einkaufen. Pony, du kommst mit!« rief Emil zufrieden.

»Denkst du vielleicht, ich fange inzwischen Fliegen?« sagte die Kusine. »Aber du mußt dir auch was kaufen. Natürlich soll Tante Tischbein ihren Haartrockner kriegen, aber du wirst dir 'n Rad kaufen, verstanden, damit du deinen Kusinen die Räder nicht kaputt zu fahren brauchst.«

»Emil«, fragte Frau Tischbein besorgt, »hast du Ponys Rad kaputt gemacht?«

»I wo, Mutter, ich hab ihr bloß den Sattel ein bißchen höher gestellt, sie fährt immer auf so 'nem ganz niedrigen, bloß aus Afferei, um wie eine Rennfahrerin auszusehen.«

»Selber Affe«, rief Hütchen, »wenn du noch mal mein Rad verstellst, ist es mit uns beiden aus, verstanden?«

Itzulpen-proposamena

Hurrengo arratsaldean gazteek elkarri agurra esan zuten. Eta Emilek hitza eman behar izan zien bihar arratsaldean Irakaslearengana joango zela Pony Hütchenekin. Orduan Heimbold osaba korrika batean sartu zen eta jaten hasi zen. Gero, Tischbein koinatari mila markoak eman zizkion eta esan zion, hobe zuela dirua banku batean sartzea.

—Ez! —egin zuen garrasi Emilek. Ez dit graziarik egiten. Amak lehorgailu elektriko bat erosi beharko luke eta baita barrutik larruzko estalkia duen berokia ere. Nik ez dakit zer nahi duzun zuk! Dirua nirea da. Nik nahi dudana egin dezaket diruarekin! Edo ez?

—Ezin duzu nahi duzuna egin —esan zuen argi eta garbi Heimbold osabak—. Ume bat besterik ez zara. Eta zure amak erabakiko du diruarekin zer egin.

Emil mahaitik altxatu zen eta buru atera zuen leihotik.

—Ene bada, Heimbold, zein zuhurra zaren! —esan zion Pony Hütchenek aitari—. Ez al duzu ikusten Emil irrikitan dagoela bere amari opari bat egiteko? Batzuetan pertsona helduak oso aspergarriak zarete.

—Noski erosiko dizkiogula lehorgailua eta berokia —esan zuen amonak—, baina soberan izango dugun dirua, bankura sartuko dugu. Ados seme?

—Jakina! —erantzun zuen Emilek—. Ados zaude amatxo?

—Zu konforme bazaude bakarrik, jauntxo hori!

—Biharamunean erosketak egitera joango gara ba. Pony, zu nirekin zatoz! —esan zuen Emilek pozik.

—Uste ote duzu agian, euliak harrapatzen nagoela? —esan zuen lehengusinak. Baina zuk ere zerbait erosi behar duzu. Noski Tischbein izebaren lehorgailua erosiko duzula, baina zuk bizikleta bat erosi beharko duzu zuretzat, ulertuta, horrela zure lehengusinen bizikletak ez apurtzeko.

—Emil Ponyren bizikleta hautsi duzu? —galdetu zuen Tischbein andereak arduraturik.

—Bai zera, ama! Eserlekua apur bat igo nuen soilik, gidari profesional baten itxura izateko, beti oso baxu eramaten du eta bestela.

—Tximino bat zara! —oihu egin zuen Hütchenek—. Nire bizikleta berriro ukitzen baduzu, akabatu egingo zaitut, bai?

Zure itzulpen-proposamena

Bibliografia

Böldt, Daniel. (2020, azaroaren 17a). Digitales Studium: Die beste Zeit ihres Lebens. Eigentlich. *Die Zeit*.

Corpas Pastor, Gloria. (2003). Fraseología y traducción. In: Gloria Corpas Pastor (Ed.), *Diez años de investigación en fraseología: análisis sintáctico-semánticos, contrastivos y traductológicos* (245-276. or.). Lingüística Iberoamericana.

Corpas Pastor, Gloria, Hidalgo Ternero, Carlos Manuel eta Bautista Zambrana, María Rosario. (2020). Teaching idioms for translation purposes: a trilingual corpus-based glossary applied to phraseodidactics (ES/EN/DE). In Florentina Mena Martínez eta Carola Strohschen (Ed.), *Teaching and Learning Phraseology in the XXI Century Phraseologie Lehren und Lernen im 21. Jahrhundert* (75-93. or.). Peter Lang.

Euskaltzaindia. (2018). *Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE). A-tik Z-ra, zalantzak eta argibideak*. Euskaltzaindia.

Garzia, Juan. (2005). *Kalko okerrak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Graz Tourismus & Stadtmarketing GmbH. (d.g.). *Grazer Sehenswürdigkeiten*.

Ibarretxe-Antuñano, Iraide. (2012). Análisis lingüístico de onomatopeyas vascas. *Oihenart*, *27*, 129-177.

Kawamura, Yayo. (ilustratzailea). (2014). *Raupenwürfeln*. HABA.

Kästner, Erich. (1929). *Emil und die Detektive*. Atrium.

Kilb, Andreas. (2008, martxoaren 13a). Auf Wiedersehen, Kinder. *Frankfurter Allgemeine Zeitung*.

Knizia, Reiner. (2006). *Chaos im Kinderzimmer*. HABA.

Koller, Werner. (2007). Probleme der Übersetzung von Phrasemen. In Harald Burger, Dmitrij Dobrovol'skij, Peter Kuhn eta Neal R. Norrick (Ed.), *Phraseologie: Ein internationales Handbuch der zeitgenössischen Forschung / Phraseology. An International Handbook of Contemporary Research* (605-613. or.). Walter de Gruyter.

Lindemann, David eta Babiano López de Sabando, Mikel. (2019). *DaF-Didaktik für baskische MuttersprachlerInnen*. X Congreso de la FAGE.

Marco, Josep. (2009). Normalisation and the translation of phraseology in the COVALT corpus. *Meta: journal des traducteurs / Meta: Translators' Journal*, *54*(4), 842-856.

Sanz-Villar, Zuriñe. (2015). *Unitate fraseologikoen itzulpena: alemana-euskara. Literatur testuen corpusean oinarritutako analisia*. [Doktorego tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco.

Sanz-Villar, Zuriñe. (2018). Interference and the translation of phraseological units in a parallel and multilingual corpus. *Meta*, *63*(1), 72-93.

Sanz-Villar, Zuriñe. (2024). German-to-Basque Translation Analysis of Multiword Expressions in a Learner Translation Corpus. *Íkala, Revista de Lenguaje y Cultura*, *29*(1), 1-21.

Schellheimer, Sybille. (2015). *La función evocadora de la fraseología en la oralidad ficcional y su traducción*. [Doktorego tesia]. Universitat Pompeu Fabra.

Schiewe, Christina (zuzendaria). (2019). *Aus Haut und Knochen*. Rowboat Film- und Fernsehproduktion.

Vester, Vera. (2021, urtarrilaren 30a). Corona-Pandemie ohne Partner: Gemeinsam einsam sein. *NDR, Norddeutscher Rundfunk*.

Laburdurak

ALEUSIKAS: ikasleen itzulpenekin sortutako alemana-euskara corpusa, MUST (*Multilingual Student Translation Corpus*)[31] nazioarteko proiektuaren testuinguran sortu eta ustiatutakoa.

BA_de

Döblin, Alfred. (1929). *Berlin Alexanderplatz: Die Geschichte vom Franz Biberkopf*. Fischer.

BA_eu

Döblin, Alfred. (2000). *Berlin Alexanderplatz: Die Geschichte vom Franz Biberkopf*. Ibaizabal. Itzultzailea, Antton Garikano.

BUS_de

Preußler, Otfried. (1987). *Markako eroak*. SM. Itzultzailea, Pello Zabaleta.

BUS_eu

Preußler, Otfried. (1958). *Bei uns in Schilda*. Thienemann.

DA_de

Werfel, Franz. (1928). *Der Abituriententag*. Zsolnay.

DA_eu

Werfel, Franz. (2008). *Batxilerren eguna*. Igela. Itzultzailea, Juan Luis Agirre.

DDL_de

Kästner, Erich. (1949). *Das doppelte Löttchen*. Atrium.

[31] https://uclouvain.be/en/research-institutes/ilc/cecl/must

DDL_eu

Kästner, Erich. (1992). *Lotte eta Luisa, hau bizki parea!* Elkar. Itzultzailea, Anton Narbaiza.

DP_de

Kafka, Franz. (1925). *Der Prozess*. Die Schmiede.

DP_eu

Kafka, Franz. (1993). *Prozesua*. Elkar. Itzultzailea, Antton Garikano.

EL_de

Arold, Marliese. (1996). *Einfach nur Liebe*. Loewe Verlag.

EL_eu

Arold, Marliese. (2004). *Maitasuna besterik ez*. Elkar. Itzultzailea, Pello Zabaleta.

HF_de

Frisch, Max. (1957). *Homo Faber*. Suhrkamp.

HF_eu

Frisch, Max. (2001). *Homo Faber*. Elkarlanean. Itzultzailea, Joxe Austin Arrieta.

JV_de

Massanek, Joachim. (2003). *Juli, die Viererkette*. Baumhaus-Verlag.

JV_eu

Massanek, Joachim. (2010). *Juli, defentsa onena*. Mezulari. Itzultzailea, Nuria Sebrango.